



2026  
2027



# IMAJI NATZEN al duzu?



**Lema  
2026/2027**

**BIGARREN HEZKUNTZAKO  
LEHEN, BIGARREN  
ETA HIRUGARREN URTEA**

## 9. IRAILA:

### HILEKO MOTIBAZIOA:

**Irudikatu dezakezu** ikasturtea helburu handi argi batekin hastea eta zure xederik handienak erdieste?

#### 1. astea. 09/06

##### a) Motibazioa:

**Irudikatu dezakezu** egun bakoitza izatea hutsetik hasteko aukera berri bat?

"Motibatu zeure burua, egun bakoitza hutsetik hasiko bazina bezala bizitzeko. Atzoko akatsek ez zaituzte definitzen. Gaur, hobeto aukeratu eta nahi duzun bizitza eraikitzeko aukera daukazu".

*Jainkoak egunsenti oro oparitzen digu, itxaropenez, maitasunez eta fedez idatz dezakegun orri zuri baten gisara. Ez du axola zer gertatu den lehen: Espiritu Santuari uztea gure bihotza berritzen eta berriz ere has gaitezen bultzatzen egiten, alaitasunez eta konfiantzaz, hori da garrantzitsuena.*

*"Hara, gauza guztiak berri egiten ditut". (Apokalipsia 21, 5)*

**b) Justifikazioa:** Motibazio honek ikasturte hasiera itxaropenez bizitzeko gonbit egiten die ikasle-irakasleei, gogora ekarriz Jainkoak berriz hasteko aukera ematen duela beti. Mezuaren helburua da jarrera positiboa sustatzea ikasturte berriko erronken aurrean. Hala, iraganeke akatsek ez gaituztela definitzen aitortzen da, eta barkamena eta berritzea Jainkoaren maitasunaren parte direla. Tradizio kristau eta maristan, ikasturte hasiera irekitasun garaia da. Orduan, Espiritu Santuak hezkuntza misioko pertsona ororen ilusioa eta konpromisoa berritzen ditu.

### 1. baliabidea:

#### a) Dinamikak: paper zimurtua.

Materialak: Paper orriak, boligrafoak, zakarrontzia, musika leuna.

Garapena:

1. Ikasle bakoitzak ikasturte hau hastean atzean utzi nahi duen edo hobetu nahi duen zerbait idatziko du orrian (adibidez, "pazientzia handiagoa izatea", "ordenatuagoa izatea", "besteak ez epaitzea"...).
2. Ondoren, papera zimurtuko dute, askatu eta Jainkoari ematen diotela sinbolizatzen.
3. Zakarrontzira botako dute gero (gurutze baten edo Mariaren irudi baten ondoan ipin daiteke).
4. Ondoren, beste paper orri bat jasoko dute, eta hasiera berria adierazten duen hitz bat idatziko hartan: itxaropena, ilusioa, fedea, konfiantza...
5. Hitz batzuk partekatuko dituzte borondatez, eta otoi labur batekin itxiko da: "Jauna, eskerrik asko egunero hutsetik hasteko aukera emateagatik".

### 2. baliabidea:

#### a) Ipuina: *Orbana koadernoan.*

Luciak koaderno berria estreinatu zuen lehen eskola egunean. Dena zen berria: liburuak, estutxea, motxila... eta ondo aritzeko gogo. Baina, lehen orrialdean, tinta tanta bat erortzen utzi zuen nahi gabe, eta orban urdin handi bat eratu zen.

Frustraturik, orria kentzea bururatu zitzaion. Orduan, irakasleak hau esan zion:

—Ez kendu orria, Lucía. Zergatik ez marraztu zerbait inguruan? Beharbada, orban hori zerbait politaren hasiera izan daiteke.

Lucía lore urdin bat marraztu zuen, eta, azkenean, koadernoko orrialde kutuna izan zen.

#### b) Irakaspena:

Zenbaitetan, akatsak zerbait berriaren hasiera dira. Jainkoak gure orbanak eraldatzen ditu, eta hazteko eta hutsetik itxaropenez hasteko aukera bihurtzen.

#### c) Otoiak:

"Eta tronuan eseria zegoenak esan zuen: 'Hara, gauza guztiak berri egiten ditut'. Eta erantsi zuen: 'Idatzi, esaten dudana hau egiazkoa eta fidagarria baita'".

### 3. baliabidea:

- a) **Bideoa:** Gogoratu beldurra hazteko lehen urratsa baino ez dela. Garrantzitsua: ausartu zaitez, baita dardarka bazaude ere, zeren gaur beldurtzen zaituenak indartsuago egingo zaitu bihar. Egin aurre olatuari eta aurkitu zeure indarra. Beldurra amaitzen den lekuan hasten gara beti hazten.

<https://www.youtube.com/watch?v=WIPVliwzrzg>

- b) Bideratu elkarriazketa ikasleei, beldurrei buruz eta beldurrak lantzen eta konpontzen ditzuten moduari buruz.

#### c) Otoitza:

"Jauna, ziurgabetasun une honetan, nire beldurrak eta antsietatea ematen dizkizut. Bare-tu ezazu nire gogo urduria eta indartu nire bihotza, begiak Zugar jarri ahal izan ditzadan. Zeu zara nire aterpea eta argia, noren beldur izango naiz ba?

Bete nazazu zure bakeaz, ezagumen oro gainditzen duen bake horretaz, eta lagundu iezadazu, sekula bakarrik ez nagoelako segurtasunarekin ibil nadin.

Amen."

#### d) Beldurretarako inspirazio gehiago:

Konfiantza izateko: "Beldur naizenean, zuregan dut konfiantza". (Salmoak 56, 3-4)

Askatasuna bilatzeko: "Jaunarengana jo nuen eta hark erantzun, beldur guztietatik libratu ninduen". (Salmoak 34, 5)

## 2. astea. 09/14:

#### a) Motibazioa:

**Irudikatu dezakezu,** gauza berriak irakatsi ez ezik, ikasturte honek pertsona hobeak izaten ere laguntzea?

*Hasiera bakoitza maitasunean, pazientzian eta barkamenean hazteko aukera bat da. Jesusek gure baitan ongiaren haziak ereitera gonbidatzen gaitu, fruitua eman dezaten eguneroko ekintzetan.*

*"Jainkoaren erreinua hazi bat bezalakoa da... Nahiz eta txikiena izan, zuhaitz handi bilakatzen da". (Markos 4,30-32)*

- b) **Justifikazioa:** Motibazio honen bidez gogora ekarri nahi da heziketa marista ez dela ikaskuntza akademikora mugatzen. Aitzitik, trebakuntza osoa eskaini nahi du, non fedea, bizitza eta kultura elkarri lotzen zaizkion. Hasiera berri hau aukera gisa agertzen da, barneko hazkunderako, balio ebanjelikoak lantzeko eta norberaren heldutasunerako aukera gisa. Jesusen eta Mariaren ereduari inspiraturik, ongiaren haziak haien baitan erne dadin adore emango zaie ikasleei. Hartara, egun bakoitza ikaskuntza humano eta espiritualeko espazio bat izango da.

## 1. baliabidea:

### a) Dinamikak: Barneko lorategia

Materialak: Kartoi mehe berdeak, errotuladoreak, guraizeak, lorontzi bat edo lorategi forma duen horma irudi bat.

Garapena:

1. Ikasle bakoitzak orri berde bat jasoko du ("hostoa" izango da).

Orri horretan, ikasturte honetan landu nahi duten jarrera edo balio bat idatziko dute (pazientzia, poza, elkertasuna, fedea, entzutea...).

2. Orri guztiak horma irudi berean jarriko dituzte. Izenburu hau izango du: "Gure barneko lorategia".

3. Astero, orri gehiago jarri ahalko dituzte, lorpen txikiekin edo bete dituzten konpromisoekin.

4. Gogoeta, ixteko:

"Landareak bezala, gu ere hazten gara Jainkoaren maitasunari gu zaintzen uzten diogunean".

## 2. baliabidea:

### a) Ipuina: *Hazten ez zen hazi.*

Lorategi batean, koloretako lore asko zeuden. Denak bizkor hazten ziren, lurpean eta azaleratu gabe jarraitzen zuen hazi bat izan ezik. Besteek iseka egiten zioten.

—Zeinen alferra zaren! —esaten zioten—. Ez zara inoiz loratuko.

Hazi horrek, ordea, eguzkia, ura eta lorezainaren zaintza jasotzen jarraitzen zuen, isilean. Egun batean, inork espero gabe, lore eder bat agertu zen, besteak baino indartsuagoa, pazientziaz eta sustrai sakonekin hazi zelako.

b) Irakaspena:

Garrantzitsuena ez da ikusten: barrutik hazten gara, denbora, fede eta maitasunarekin. Horrela dihardu Jainkoak gutako bakoitzaren bihotzean. Ikasturte osoa dugu horretaz jabetzeko. Eska diezaiogun Jaunari laguntzeko eta ondoan egoteko.

### c) Otoitza.

"Jauna, gaur nire beldurrak ematen dizkizut, baita azaleratzeko beldur zen hazi txiki hori ere.

Lagundu, niretzat dituzun planak nire segurtasunik eza baino handiagoak direla sinets dezadan.

Eman pazientzia, hazkunde orok denbora behar duela ulertzeko, eta eman indarra, nire sustraian sakontzeko gora joatea bilatu baino lehen.

Ez dezadan amore eman prozesuak motela dirudienean, baizik eta konfiantza izan dezadan zure Espirituaren ahal ikusezinean, ni haztea eragiten du eta.

Amen."

### d) Gogoetarako irakaspen giltzarriak:

*Beldurra gainditzea:* Hazia bezala, gu ere gelditu egiten gara kanpoko zailtasunen beldur garenean. Hala ere, geure "lurretik" azaleratzean soilik aurkitu dezakegu gure ahalmena.

*Sustraien garrantzia:* Ez bilatu berehalako arrakasta. Modu sendoan hazteko, oinarri sakona behar da, ez gaitezen ekaitzetan amildu.

*Konfiantza prozesuan:* Nahiz eta aldaketak begi hutsez ez ikusi, bizitza beti ari da bidea egiten, isil-misilka eta etengabe.

### 3. baliabidea:

#### a) Otoitza:

"Beste hau ere esan zien: 'Zeren antzeko dela esango genuke Jainkoaren erregetza? Zein parabolaren bidez adieraz genezake? Mostaza haziaren antzekoa da: lurrean ereitean, hazi guztietan txikiena da; erein eta gero, ordea, gora egiten du eta beste barazki guztiak baino handiagoa egiten; eta txoriek habia egiten dute haren itzalpean, hainbestekoak baidira ematen dituen adarrak'".

Otoitz horri Rozalénen *Los girasoles* abestia (Ekiloreak) gehitzen badiogu, hau esan dezakegu: "Mostaza haziaren antzera, maitasunez eta ontasunez ereiten den txiki hori hazi egiten da, besteentzako argi eta aterpe bihurtu arte".

#### b) Abestia: Abestiaren egilea: María de los Ángeles Rozalén Ortuno / *Los girasoles*en hitzak.

[https://www.youtube.com/watch?v=XvORNbOM4EA&list=RDXvORNbOM4EA&start\\_radio=1](https://www.youtube.com/watch?v=XvORNbOM4EA&list=RDXvORNbOM4EA&start_radio=1)

Era necesario respirar para mirar alrededor  
 Paseo por La Habana y un café  
 Frente al malecón, con, con, con, con  
 Comienzan los recuerdos  
 Las espinas afloraron mi interior  
 Todo lo que no se atiende  
 Tarde o temprano, reaparece, ajá  
 Pero nos miramos  
 Vaya año pasamos, a ver si remontamos  
 Sin dedicarle más tiempo y el mundo está lleno  
 De mujeres y hombres buenos  
 Así que le canto a los valientes  
 Que llevan por bandera la verdad  
 A quienes son capaces de sentirse en la piel de los demás  
 Los que no participan de las injusticias  
 No miran a otro la'o  
 Los que no se acomodan  
 Los que riegan siempre su raíz...  
 A ti, mi compañero, que me tiendes la mano  
 Que es tu corazón bondad  
 Me estudias con curiosidad  
 Me miras con respeto  
 Y besas, con cariño, cada parte de mi cuerpo  
 Tienes en los ojos girasoles  
 Y cuando me miras, soy la estrella que más brilla  
 Cuando ríes se ilumina todo el techo  
 Ya duermo tranquila siento tanta calma dentro  
 Y... Tienes en los ojos girasoles  
 Y cuando me miras, soy la estrella que más brilla  
 Cuando ríes se ilumina todo el techo  
 Ya duermo tranquila siento tanta calma dentro  
 Es necesario revivir para poder saborear  
 Encajo las ideas, Gogoeta para mejorar-ar-ar-ar

Antes de un gran impulso doy un paso pequeño para atrás  
Todo lo que no atendí vuelve siempre a resurgir  
Pero sonreímos, vaya si vivimos, todo lo que aprendimos  
No le dedicaré más tiempo pues, el mundo está lleno  
De mujeres y hombres buenos  
Así que le canto a los coherentes, a los humildes que buscan la paz  
A los seres sensibles que cuidan de otros seres y saben amar  
A todos los que luchan por nuestros derechos, miran a todo hombre igual  
A quienes no me juzguen y quien esté dispuesto a compartir  
A ti, mi compañero, que tienes alma pura  
Que es tu corazón bondad  
Respetas mi espacio vital  
Me escuchas bien atento  
Y besas, con cariño, cada parte de mi cuerpo  
Tienes en los ojos girasoles  
Y cuando me miras, soy la estrella que más brilla  
Cuando ríes se ilumina todo el techo  
Ya duermo tranquila, siento tanta calma dentro  
Y... Tienes en los ojos girasoles  
Y cuando me miras, soy la estrella que más brilla  
Cuando ríes se ilumina todo el techo  
Ya duermo tranquila, siento tanta calma dentro  
El progreso de la condición humana  
Requiere, inapelablemente, que exista gente  
Que se sienta, en el fondo, feliz  
Y a dar su vida al servicio del progreso humano.

### 3. astea. 09/21:

#### a) Motibazioa:

**Irudikatu dezakezu** aste bakoitza hastea Jainkoa zure ondoan dabilelako ziurtasunarekin?

*Zenbaitetan, hasierek beldurra ematen digute, baina ez gaude bakarrik. Jainkoak eskutik garmatza eta gidatzen gaitu, baita nora goazen ez dakigunean ere. Harengan uste osoa izateak bakea eta aurrera egiteko indarra ematen digu.*

*"Izan bihotzez Jaunarengan konfiantza eta ez fio izan zeure adimenaz". (Esaera Zaharrak 3, 5)*

**b) Justifikazioa:** Motibazio honekin, Jainkoa beti hor dagoelako konfiantza indartu nahi da. Aldatu edo hasteko prozesu orotan, segurtasun ezak eta beldurrak agertzen dira. Horregatik, Jainkoaren bidelaguntzan konfiantza izateko gonbit egiten zaie hezkuntza komunitateko kideei. Espiritualtasun maristan, Jainkoa gure urratsak gidatzen dituen hurbileko Aita bat da, bereziki zalantza egiten dugunean. Gogoeta horrek fede aktiboa eta lagundua sentitzeko barneko segurtasuna sustatzen ditu, eta hori giltzarri da hasierak lasaitasunez eta itxaropenez bizitzeko.

#### Recurso 1:

##### a) Dinamika: Fede oinatza.

Materialak: Oinatzen paperezko siluetak, errotuladoreak, kartoi mehe handia edo horma irudia.

Garapena:

1. Oinatz bat emango zaio ikasle bakoitzari.
2. Hartan, Jainkoarengan konfiantza handiagoa izan behar duten egoera bat idatziko dute, edo Jainkoaren presentzia sentitu zuten une bat.
3. Oinatz guztiak horma irudian jarriko dituzte, gurutze bateranzko edo Jesusen irudi bateranzko bidea eginez.
4. Oinatz batzuk irakurtzeko gonbit egingo da (borondatez).
5. Azken gogoeta:  
"Jainkoak ez ditu urrats zailak kentzen, baina bidean gure ondoan dago beti".

## 2. baliabidea:

### a) Ipuina: El pastor y el sendero oscuro

Una noche oscura, un joven pastor debía guiar a sus ovejas por un sendero que no conocía. Solo tenía una linterna con poca luz.

Asustado, miró al cielo y oró:

—Señor, no puedo ver todo el camino.

Y escuchó en su corazón una respuesta suave:

—No necesitas ver todo, solo el siguiente paso.

El pastor siguió avanzando paso a paso, y al amanecer descubrió que había llegado a un prado seguro.

### b) Moraleja:

No siempre veremos el final del camino, pero si confiamos en Dios, Él iluminará cada paso que demos.

### c) Otoitza:

Fíate de Jehová de todo tu corazón,

Y no te apoyes en tu propia prudencia.

Reconócelo en todos tus caminos,

Y él enderezará tus veredas.

## 3. baliabidea:

### a) Bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=LCqA9X8c6Fc>

– Leloaren eta bideoaren arteko konexioak:

1. **Sentimenduak esploratzea:** Proposatu ikasleei pentsa dezaten bideoaren zer zatitan ikusi duten nork bere buruari edo besteei buruzko zerbait berria "deskubritzearekin" konektatzen duen emozio bat.
2. **Agerikoa denaz harago begiratzea:** Erlazionatu nola animatzen duen "begirada bakoitza garrantzitsua da" esaldiak bistakoak ez diren xehetasunei erreparatzera.
3. **Ikaskuntza prozesua:** Konektatu bideoa bizipenetatik ikasteko ideiarekin, eta ez dela informazioa azaletik ikustea soilik.

– Galdera irekiak:

1. **Bideoko zein unek eragin dizu zerbait indartsua pentsatzea edo sentitzea? Zergatik?**

*Galdera hau emozioak identifikatzeko eta "sentitu" leloarekin konektatzeko gonbidapena da.\**

2. **Zure iritziz, zer mezu transmititu nahi du bideoak? Nola lotzen da gure leloarekin?**

*Eman aukera eduki bisuala gogoetarekin eta jardueraren helburuarekin konektatzeko.*

3. **Bideoko istorioan zerbait aldatzerik edo gehitzerik bazenu, zer izango litzateke? Zergatik?**

*Sustatu sormena, norbere adierazmena eta pentsamendu kritikoa.*

4. **Bideoa ikusi ondoren, zer ikasi duzu? Nola aplika dezakezu egunerokoan?**

*Itxi gogoeta, ikaskuntza ikasgelatik kanpora transferi dezaten sustatuz.*

#### 4. astea. 09/28:

**a) Motibazioa:**

**Irudikatu dezakezu** nork bere aletxoa jartzen duen ikasturte berri bat, mundua senidetasun handiagoko leku bat izatea lortzeko?

*Hasiera bakoitza gonbidapena ere bada: batera lan egiteko, garena partekatze eta komunitatea eraikitze gonbidapena. Jesusek bere ikasleekin egin zuen bezalaxe. Denok batera, gure ingurua berriro dezakegu, maitasun eta zerbitzu keinu errazekin.*

*"Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago ni beraien artean". (Mateo 18, 20)*

**b) Justifikazioa:** Motibazio honen bitartez, kristau komunitatearen eta senidetasunaren balihoa sustatu nahi da, hasiera berrien zimendu gisa. Jesusen eredu eta maristek berezkoa duten familia espiritua berriz landuta, errespetu, elkarlan eta zerbitzuzko giroa batera eraikitze gonbit egiten zaie denei. Xede pertsonalak ez ezik, ikasturte berria guztion ongiaren alde lan egiteko konpromisoa ere badakar ikasturte berriak. Modu horretan, pertsona bakoitza aldaketa eta itxaropen tresna bihurtzen da bere eskola eta gizarte ingurunean.

#### 1. baliabidea:

**a) Dinamika:** Senidetasunaren harresia

Helburua: Talde lana eta komunitatearen gaineko kontzientzia sustatzea.

Materialak: Adreilu formako txartelak (kartulina mehe marroia edo laranja), zinta itsasgarria, horma irudi handia.

Garapena:

1. Ikasle bakoitzak "adreilu" bat jasoko du, eta senidetasunezko giroa eraikitze egin dezakeen ekintza zehatz bat idatziko du hartan (entzun, lagundu, partekatu, irribarre egin, adore eman...).
2. Adreilu guztiak "harresi" bat osatzeko moduan itsatsiko dituzte, izenburu honekin: "Elkarrekin mundu hobea eraikitzen dugu".
3. Jesusen edo Mariaren irudi bat ipin daiteke erdian, "giltzarri" moduan.
4. Itxiera, otoitz komunitarioarekin:

*"Jauna, egiguzu senidetasunaren eta bakearen eraikitzaile hasiera berri honetan".*

#### 2. baliabidea:

**a) Ipuina:** Koloretako adreiluak. Ikasturte hasiera honetan eraikitzen jarraitzen dugu...

Herri batean, haurrek etxetxo bat eraikitzea erabaki zuten, jolas egiteko. Bakoitzak adreilu bat eraman behar zuen. Haur batek adreilu gorria eraman zuen; beste batek, urdina; beste batek, berdea... Era horretan, kolorez beteriko etxetxo bat altxatu zuten denen artean.

Amaitu zutenean, begira zegoen agure batek esan zien:

– Ikusten? Adreilu bakoitza desberdina da, baina denek batera emaitza ederraosatzen dute. Komunitatea ere horrelakoa da: bakoitzak bere dohaina du, eta batzen dituztenean, emaitza handia da.

#### b) Irakaspena:

Elkarrekin lan egin eta gure dohainak besteen zerbitzura jartzen ditugunean, senidetatsuna eta alaitasuna eraikitzen ditugu, Jesusek irakatsi zigun bezala.

c) Esan dezagun aitagure bat denok batera, eta eska diezaiozun Aitari ikasturte berri hau elkarrekin eraikitzen laguntzeko.

### 3. baliabidea:

#### a) Otoitza:

Hurbildu ziren ikasleak Jesusengana eta galdetu zioten: Nor da Jainkoaren erreinuan handiena? Jesusek, haur bati dei egin eta haien aurrera ekarririk, esan zien: Benetan diotsuet: Berriro haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko Jainkoaren erreinuan. Beraz, haur hau bezain txiki bihurtzen dena, hori da Jainkoaren erreinuan handiena. Eta honelako haurra nire izenean onartzen duenak neu onartzen nau.

#### b) Bideoa: Lidergoa eta talde lana

BIDEOAK: <https://www.youtube.com/watch?v=jW5KN4KvpwO>

#### c) Gogoeta:

"Irudikatu dezakezu denek xede bererantz jarduten duen talde bat, inspiratu eta bidean laguntzen duen lidergo bati esker?"

##### • Irudikatu dezakezu... denek xede bererantz jarduten duen talde bat?

Irudikatu une batez pertsona talde bat. Elkarrekin lan egiteaz gain, **modu koordinatu eta konprometituan** ere jarduten dute. Taldekide bakoitzak bere indarguneak eskaintzen ditu, besteei entzuten die eta bere ahalegina arrakasta kolektiboari batuko zaion konfiantza du. Hori da **talde lanaren** ahala.

Orain, pentsatu zein den liderraren rola agertoki horretan. Lider batek ez ditu aginduak ematen soilik; **inspiratu egiten du, bidean laguntzen du eta motibatu egiten du**. Badaki nola gidatu taldea, nola jabetu talentuez eta nola sustatu elkarlana, taldekide guztiek beren ahalmenik handiena gauzatu ahal izateko moduan.

"Lidergoa eta talde lana" bideoan ideia hori adierazten da, hots, lidergo eraginkorrak norbanako talde bat eralda dezakeela erakusten da, emaitza handiak lortu ditzakeen talde bihurtzeko. Komunikazio, konfiantza eta erantzukizun partekatuko adibideak nabarmenduko dira, era horretan lortu baitaiteke taldeak batera gainditzea erronkak.

##### • Irudikatu dezakezu orain nolakoa izango litzatekeen zure taldea denek xede bererantz jardungo balute?

- Lankidetzat natural bilakatzen da.
- Xede partekatuak bizkorrago erdiesten dira.
- Taldekide bakoitza baloratua sentitzen da, eta bere onena emateko motibatua.

Hori da helburua: irudimenak gogoeta piztea eta, aldi berean, lidergoaren eta talde lanaren funtsezko printzipioak ulertzea. **"Irudikatu dezakezu...?"**. Lelo horrekin, errealitate hori batera bistaratzen eta sortzen gonbidatzen gaituzte.

## URRIA:

### HILEKO MOTIBAZIOA:

**Irudikatu dezakezu...** inor bakarrik ez ibiltzea? Ibiltzeko, besteak behar ditugu. Geure burua besteekiko harremanean eraikitzen dugunez gero, gure harremanei itxaropenez begiratu behar diegu.

### 1. astea. 10/5:

#### 1. baliabidea:

##### a) Motibazioa:

Gogoeta laburra: Eta itxaropenez begiratuko bagenie inguruari eta egunerokoan bestee-kiko egiten ditugun gauza txikiei? Besteekin harremanak izateko modua eta gure ekint-zak aldaketarako eragile ahaltsuak dira. Horregatik, horren garrantziaz jabetzeko ariketa bat egingo dugu.

##### b) Dinamika:

Eguna hasteko, zer den itxaropena galdetuko diegu **ikasleei**, eta **zertan datzan haien iritziz**. Binaka gogoeta egin eta gero, itxaropen txiki jakin bat pentsatuko dute aste honetarako; es-ate baterako, "hari berriz hitz egitea", "matematika gainditzea", "pazientzia handiagoa iza-tea etxean", "pertsona jakin bat zirikatzeari uztea"... Amaitzen dutenean, talde osoarentzat A3 formatuan inprimatu den argimutilean itsatsiko dute. (*Ozenki partekatze*ko gonbit egin-go zaie).

[https://es.123rf.com/photo\\_79465722\\_libro-de-colorear-para-ni%C3%B1os-candela-bro-de-dibujos-animados.html](https://es.123rf.com/photo_79465722_libro-de-colorear-para-ni%C3%B1os-candela-bro-de-dibujos-animados.html) (Taldekako argimutilla - A3)

#### 2. baliabidea:

##### a) Gogoeta:

Norbait ondoan dugunean, itxaropena hazten da. Gure erreferentziek, Jesusek, Mariak eta Martzelinok, bazekiten hori.

Horregatik, Martzelinok dio: "Ikusten zaitut, axola didazu".

Mariak lasai entzuten du.

Jesusek adierazten du: "Zure ondoan nabil".

Zenbaitetan, norbait taldetik at geratzen da, jolastokian, ikasgelan... edo bere baitan. Eta ez du esaten, lotsagatik.

Jesusek esan zigun: "ELKAR MAITA DEZAZUELA". Hemen, maite izatea inor atzean ez uztea da, inor bakarrik gera dadin ez uztea.

##### b) Dinamika:

Horregatik, begiak ixteko eskatuko dizuegu. Ekarri gogora bakarrik egon daitekeen edo agian adorea behar duen norbait. Eduki dezagun gogoan, eta gaur harekin keinu txiki bat izateko konpromisoa hartu dezagun.

Diosala egitea zuk lehenik.

Gertu esertzea.

Taldera gonbidatzea.

'Zer moduz zaude?' galdetzea.

Min ematen duen txantxa bat moztea.

Keinuari amaiera emateko, otoitz hau.

c) Otoitza:

Jesus, eman itxaropena, besteak tratatzeko moduan nabari dena.

Maria, erakutsiezaguzu bidean txeraz laguntzen.

Martzelino, lagunduiezaguzu, gure eskolan **inor ez egoteko bakarrik**. Amen.

3. baliabidea:

a) Motibazioa:

Gaurko eguna abesti batekin hasiko dugu. Ez da magiari buruzkoa; aitzitik, gure bizitzan mugi daitezkeen gauzak daudela gogorarazten digu, keinu txiki batekin mugi ditzakegula.

Irudikatu dezakezu zer alda genezakeen begirada aldatzen badugu, begirada itxaropent-suagoa izango bagenu?

b) Abestia: Diego Torresen *Color esperanza* abestia (Itxaropen kolorea) entzungo dugu:

<https://www.youtube.com/watch?v=NbIVOQRs-Vs>

c) Dinamika:

- Abestian, aurpegia itxaropen kolorez pintatzea aipatzen da, etorkizunari begira bihotzarekin saiatzea. Zerbait egin daitekeela jakitea. Zer egin dezaket gaur, nire eguna itxaropen handiagotz margotzeko?
- Binaka partekatuko dugu.

## 2. astea. 10/12:

1. baliabidea:

a) Motibazioa:

Gaur, A4 formatuko orri bana eman behar zaie ikasleei, aurreko astean erabili genuen irudiaren antzeko batekin. Oraingoan, baina, erabilera pertsonala izango du, bakarkakoa.

b) Dinamika:

Lehen kandela osatu behar dutela azalduko diegu. Horretarako, lagun arteko une bat aipatuko dute, arrastoa utzi diena edo beren bizitzan inpaktua eduki duena. (Une hori **norekin bizi izan duten** ere idatz dezakete kandelan).

Argimutilaren irudia: [https://www.flaticon.es/icono-gratis/candelabro\\_96342](https://www.flaticon.es/icono-gratis/candelabro_96342)

c) Berrirakurketa:

Adiskidetasunak bizitza partekatuz eraikitzen dira, bizitza ospatuz, bata bestearentzat hor egonez. Orduan sentitzen gara maitatuak; adiskidetasuna hazten doa konplizitate une bereziak partekatzen ditugunean. Egoera horretan, abesti hau entzungo dugu:

d) Abestia: ¿*Por qué no ser amigos?* (Zergatik ez izan lagunak?) Hombres G.

<https://youtu.be/rhgjEwe9Puw?si=EKxlqZ80i8CjjQW2>

2. baliabidea:

a) Motibazioa:

Irudikatu dezakezu gure zauriak edo "arrakalak" ez ezkutatzea, baizik eta zauriek eta arrakalek hazten laguntzea?

b) Bideoa: Japoniako Kintsugi artea:

<https://www.youtube.com/shorts/KEefNXngw-c>

c) Dinamika:

Zer ikas dezakegu Japoniako Kintsugi artearen bidez?

Bideoa ikusiko dugu eta ideiak adieraziko ditugu ozenki. Irakaslea arbelean idazten joan daiteke.

Bi galdera hauek binaka partekatuko ditugu:

- Zure aburuz, pertsona bat indartsuagoa izan daiteke erori ostean? Zer behar du horretarako?
- Zer ikasi duzu akats batetik edo une zail batetik (xehetasunak azaldu gabe)?

### 3. baliabidea:

#### a) Motibazioa:

Urriko hirugarren igandean DOMUND ospatzen da. Zer da DOMUND, ordea? Domund **be-giak zabaltzeko egun bat da. DOMUND** hitzak *misioen munduko igande* esan nahi du: **oi-narrizkoa falta** den lekuetan (eskola, medikuntza, janaria, segurtasuna...) jendea dagoela gogoratzea (misiolariak eta komunitateak), hala eta guztiz ere **duintasunaren** eta **itxa-ropenaren** alde aritzen baitira. Halaber gogoraraziko diegu eliza (eta gu) ez garela "nire eskola, nire hiria, nire taldea": **munduko familia** gara.

Irudikatu dezakezu denok ikustea zein den gure misioa eta misio horri jarraitzea?

#### b) Bideoa: Domundi buruzko bideo hau ikusiko dugu: Superheroiak, Domund 2017

<https://www.youtube.com/watch?v=kyM-au65ijk&t=15s>

#### c) Dinamika:

Galdera batzuk iradoki eta binaka partekatuko ditugu.

- Zer heroi ezagutzen ditut gaur nire inguruan? Zergatik?
- Gaur egun, zein da nire misioa, ene ustetan?
- Zer gauza garrantzitsutan ahalegintzen naiz?

## 3. astea. 10/19:

### 1. baliabidea:

#### a) Motibazioa:

Gaur, **zure eta nire baitan bizi den Jainko horretan jarriko dugu arreta, eta gure baitan agertzen den eran.**

Zenbaitetan, arreta nork bere akatsetan jartzen dugu. Jesus ez dator hona zu epaitzera, ordea, baizik eta hutsetik has zaitezkeela erakustera. Berak zure baitako argia ikusten du, baita zuk ikusten ez duzunean ere.

Bidea Harekin egiten baduzu, ez zara egin zenuenaren iluntasunean geratuko, izan zai-  
tezkeen argitasunean baizik.

#### b) Dinamika:

Horregatik, Joanen ebanjelioko zati bat irakurriko dugu. Hartan, Jesusek zur eta lur uzten gaitu denok:

**Pertsona bat bere akatsagatik epaitu beharrean, barkamena eta bizitza berria eskaintzen dizkio.**

Istorio horrek oroitarazten digu beti dagoela bigarren aukera bat Jesusekin, eta haren argiak dirdira egin dezakeela gure unerik ilunenetan ere. **Ebanjelioko pasarte hori entzutera animatzen zaituztegu...**

**Gogoratu hitz bat, eta ausartu ozenki esatera.**

<https://www.biblija.net/biblija.cgi?biblia=biblia&m=Jn+8%2C1-11&id22=1&pos=0&set=13&l=es>

Amaitzeko, badakigu: Berak zure baitako argia ikusten du.

## 2. baliabidea:

### a) Motibazioa:

Gaur, bestelako mundu bat irudikatzea proposatzen dizut. Eta, geure burua inposatu beharrean... elkar topatzen ikasiko bagenu?

### b) Bideoa: Zubia:

<https://www.youtube.com/watch?v=O6cdEIAWR7Y>

### c) Dinamika:

Bakarka erantzungo diete galdera hauei:

- Gatazka bat dagoenean, **zein pertsonaiak du nire antz handiena:** bultza egiten duenak, blokeatzen denak, amore ematen duenak, irtenbidea bilatzen duenak...?
- **Zer "zubi" daukat gaur** ikasgelan/etxean/taldean? (Errieta bat, gaizki-ulertu bat, elkarri hitz egiten ez diogun norbait).
- **Zer urrats txiki** egin dezaket zubia "zeharkatzeko", inor umiliatu gabe?

Jarraian, "neure zubia" zeharkatzen lagunduko didan konpromiso bat idatziko dut, gaur hitzemango dudan urrats txiki bat.

### d) Otoitza:

Jesus, lagun iezaguzu inor zapaldu beharrik gabe irabazten den mundu bat irudikatzen.

Egiguzu apal eta ausart: barkamena eskatzeko, entzuteko eta amore emateko gauza.

Gaur eman dezadala nire zubia errespetuz zeharkatzeko urrats bat. Amen.

## 3. baliabidea:

### a) Motibazioa: Irudikatu dezakezu elkarrekin ibiltzea?

### b) Dinamika:

- Musika: Musika lasaia jarriko dugu:

Horma paper zuri-beltza, ordubete,

<https://www.youtube.com/watch?v=R8gGUHfsEo8>

- Arbelean, oinatzaren irudia proiektatuko dugu (beste bat ere izan daiteke).
- Minutu batez isiltasunean egotera eta galdera hauetan pentsatzera gonbidatuko ditugu:
  - **Ezabatu nahiko nukeen oinatz bat** (hitz bat, iseka, ezaxola).
  - **Norbaitek nigan utzitako oinatz on bat** (keinu zehatz bat).
  - **Aste honetan nik utzi nahi dudan oinatz bat** (keinu txiki bat: diosala egitea, besteak taldean sartzea, barkamena eskatzea, norbaitekin esertzea, txantxa baten aurrean barre ez egitea).
- Nahi dugun galdera ikaskide batekin partekatuko dugu.



### c) Otoitza:

Maria, Ama Ona, lagundu iezaguzu elkarrekin ibiltzen.

Jakin dezagula barkamena eskatzen, lekua egiten eta bidean laguntzen.

Gaur utz dezadala nik ongiaren oinatz bat. Amen.

## 4. astea. 10/26:

### 1. baliabidea:

#### a) Motibazioa:

Aurreko saioetan egindako argimutilla baliatuz, gaur bigarren kandelarekin jarraituko dugu. Hartan idatziko dugu zergatik uste dugun familia garrantzitsua dela gure bizitzan, edo zer ematen digun, gure bidea egiten jarraitu ahal izateko.

#### b) Dinamika:

Laguntzeko, abesti bat entzungo dugu. Hartan erakusten da ezen pertsonak, maite ditugunean, aparteko bihur dezaketela "arrunta" den zerbait: zarataren, presaren eta distrakzioen erdian, pertsona batek lasaitasunera itzularazteko gaitasuna dauka, egiten dugunari zentzua eman eta bizitzaren itxaropenera irekitzeko gaitasuna.

Abestiak ideia bat darabil: baliotsuena ez da ikusgarriena, egunerokoa baizik, benetako maitasuna dagoenean. Norbait aukeratu, zaindu, iraun, eta harreman horrek "etxean" sentiaraztea. Maitasunak guk transzenditzea eragiten du, harago joatea.

#### c) Abestia: Alex Warren, Ordinary.

[https://www.youtube.com/watch?v=9g5I3893B\\_Q](https://www.youtube.com/watch?v=9g5I3893B_Q)

Ekarri gogora zuretzat garrantzitsua den norbait. Idatzi nor den, eta eman eskerrak bera hor egoteagatik.

### 2. baliabidea: Montagne esperientzia

#### a) Motibazioa:

Gaur gogoratuko dugu zeinen garrantzitsua izan den Martzelinok Montagne gaztearekin bizitakoa. Esperientzia sakon horren eraginez gaude gu guztiok gaur hemen.

#### b) Bideoa: Martzelinok Montagne gaztea ezagutu du.

<https://www.youtube.com/watch?v=FtxJJTFz7A>

#### c) Dinamika:

"Orain, **Montagnek** hau esan nahi du: norbaitek laguntzea ongi etorri zitzaion pertsona bat".

"Ez ditugu heroiak nahi. **Ekintza zehatzak** baizik".

Azken boladan lagundu dioten pertsona bat gogora ekartzeko gonbit egingo diegu (ikas-kide bat, anaia-arreba, bizilaguna, taldeko norbait, etab.) Otoitzaren hasierak arbelean idatziko ditugu. Orriak banatu eta hautatu duten pertsonari buruz hausnartuz osatzeko eskatuko diegu.

1. Nire "Montagne" pertsona hau izan zen: (inizialak edo ezizena, **izen osorik ez**).
2. Honela zegoen: (zer gertatzen zitzaion? / zer behar zuen?).
3. Nik hau egin nuen: (ekintza zehatza).
4. Kostatu zitzaidan, honengatik: / Honen beldur izan nintzen:
5. Ondoren, hau gertatu zen: (emaitza).
6. Hurrengoan honela jardun dezaket: (hobetzea edo errepikatzea).

### 3. baliabidea: Bugobeko martiriak gogoratuko ditugu.

#### a) Motibazioa:

Aste honetan, Bugobeko martirien esperientzia gogoratuko dugu: Bugobeko martiri maristak Espainiako lau anaia marista izan ziren, Servando Mayor, Miguel Ángel Isla, Fernando de la Fuente eta Julio Rodríguez. Gerra eta errefuxiatuak zirela eta, oso egoera

latza zegoen Bugobe inguruan (orduan Zaire zen, eta orain, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Ruandatik gertu). Horiek horrela, geratzea erabaki zuten jendeari laguntzeko, batez ere haurrei.

Errefuxiatuentzako esparru batean bizi ziren eta han bertan lan egiten zuten, oso zeregin zehatzetan: hezkuntza, laguntza kanpamentuko bizitzan, eta dena galdu zutenen ondoan egotea. Haientzat, pertsona horiek "familia" bihurtu ziren.

1996ko urriaren 31n han bertan erail zituzten. Martiri esaten zaie zeren, nahiz eta alde egin zezaketen, zerbitzatzan zietenak ez uztea erabaki zuten: maitasunez eta elkartasunez geratu ziren, Jesusek jokatuko zuen bezalaxe, eta Martzelino Champagnaten estilora, oso.

**b) Bideoa:** *Bugobeko martiriak, 1996ko urriaren 31*

[https://www.youtube.com/watch?v=XKU\\_Z7gb4dk](https://www.youtube.com/watch?v=XKU_Z7gb4dk)

**c) Baterako gogoeta:**

Zer bertute ikusten dituzue haiengan?

Zer egiten zaizue deigarria?

**d) Otoitza:**

Jesus,  
eskerrak ematen dizkizugu gaur, Bugobeko anaia maristen bizitzagatik.  
Sufritzen ar zirenen ondoan geratzea erabaki zuten,  
eta benetan maitatzea ondoan egotea eta ez uztea dela erakutsi ziguten.

Eman iezaguzu haiena bezalako bihotza:  
ausarta, ongia egiteko,  
apala, deigarri gertatu gabe zerbitzatzeko,  
eta fidela, bakarrik edo zauritua dagoena zaintzeko.

Maria, Ama Ona,  
estal gaitzazu zeure txeraz eta irakatsi hurbil egoten,  
entzuten, kontsolatzen eta bakea eraikitzen.

Martzelino Champagnat,  
lagundu iezaguzu familia gisa bizitzen,  
elkarri txeraz begiratzen  
eta besteentzat argi izaten.

Bugobeko ereduak fedea pitz dezala gudan,  
senideago egin gaitzala,  
eta itxaropena behar den lekura eramatera bultza gaitzala.

Amen.

**HILEKO MOTIBAZIOA:** Irudikatu dezakezu... denek ahotsa izatea?

Ahotsa da sentimenduak, emozioak, bizipenak, pozak eta kezak adierazteko erabiltzen duzun tresna. Irudikatu dezakezu ezin hitz egitea? Edo, nahiz eta hitz egin, esan behar duzuna inork ez entzutea? Hil honetan, beldurrik gabe entzuten den ahots bat irudikatuko dugu, isildua izan gabe ekarpenak egin ditzakeen ahots bat, besteek entzungor egin gabe elkarrizketan aritzen den ahots bat. Zubiak eraikitzen dituen ahots bat, askotariko begiradak batzen dituen eta dibertsitateak banatu ez baizik eta aberasten duela gogorarazten diguna. Pertsona oro askatasunez eta duintasunez mintzatu daitekeen mundu bat irudikatzea; hori da gizarte bidezkoago eta humanoago bat lortzeko lehen urratsa. Izan gaitezen ahotsik ez dutenen ahotsa.

Entzuten ez badizute, ez isildu, jarraitu, esan ozenki! Asko duzu esateko.

**Semana 1. 02/11:**
**1. baliabidea:** Kalitate oneko informazioa jasotzeko eskubidea.

**a) Motibazioa:** Kalitate oneko informazioa jasotzeko eskubidea. Informazioa egiaztatzea garrantzitsua da; ez dugu sinetsi behar entzuten dugun lehen gauza, baizik eta iturria bilatzen saiatu behar dugu. Adibide baten bidez ikusiko dugu zeinen erraza den informazioa desitxuratzea edo oker hautematea.

**b) Dinamika:** Zer kontatzen didazu?

Binaka, marrazki bat transmititu behar diogu kideari bere bizkarrean, berak paperean marrazteko. Era horretan ikusten da informazioa nahita edo nahi gabe desitxura daitekeela.

NOLA BIHUR DEZAKEGU DINAMIKA HAU OTOITZ? AGIAN, OTOITZA HARREMANAK IZATEKO FORMA BAT DA, ETA, MEZUA EZ DESITXURATZEKO, JESUSEKIN ZUZENEAN AURREZ AURRE EGOTEA GARRANTZITSUA DA, ETA EGUNSENTIKO UNEAK BALIATZEA, OTOITZERAKO UNEAK, ESKOLAN ESKAINTZEN DIZKIGUTENAK, GAZTE TALDEETAN, ESKAUTETAN, EUKARISTIAN... IRADOKIZUN BAT DA.

**2. baliabidea:**
**a) Otoitza:**

Ahotsa eta presentzia  
 Ilunabarrean  
 Nigana iristen da  
 Haize leun baten modura  
 Adore ematen duen suaren modura  
 Zure Hitza.  
 Itsasoko olatuek  
 Eta uretako  
 Korronteek  
 Ekartzen didate zure Ahotsa.  
 Zurekin nago, ez izan beldur.  
 Hemen zurekin nago, bizi.  
 Ilunabarrean, elkarrekin  
 Ikusten dugu  
 Zeure Presentzia  
 Iragartzen joateko lana.

## b) Gogoeta:

- **Oihartzuna isiltasunean:** Zenbaitetan, erantzunak egunaren harrabotsean bilatzen ditugu, baina egiazko gida "ilunabarrean" iristen da, zarata amaitzen denean. Opus Deiren webgune ofizialean dioten bezala, isiltasuna ez da hutsa, baizik eta **Presentzia** ukigarri bilakatzen den espazioa eta **Ahotsak** gogorarazten digu sekula bakarrik ez garela ibili.
- **Konfiantzaren jariakortasuna:** Zure bertsoetako "ur korronteek" bezala, bizitzak eten-gabe mugitzen gaitu. "Hemen nago zurekin" gogoan izanez, ziurtasun hori gogoan izanez onartzen bada mugimendua, beldurra bizitasun bilakatzen da. Vatican Newseko gogoetei jarraika, gelditzen ez gaituen aingura bat da **Hitza**; horren orde, maite eta sostengatzen dutela badakienaren ziurtasunez nabigatzeko aukera ematen digu.
- **Misio partekatua:** "Presentzia iragartzea" ez da zama bat, baizik eta bularrean sua aurkitu duenaren "lan" naturala. Catholic.net atarian iradokitzen duten moduan, Jainkoaren **presentzia** da eguneroko keinu bakoitza egunaren amaieran jasotzen dugun "haize leunaren" isla bat.

## Recurso 3:

### a) Ipuina: Haziak.

Bazen behin gazte bat, hiri ezezagun batean zehar zebilena. Bat-batean, markesinan idazkun bitxi bat zeukan denda bat ikusi zuen: "Zoriontasuna".

Sartu zenean, negozioa aingeruek zeramatela ohartu zen. Eta, erdi izuturik, aingeru bategana hurreratu eta galdetu zion:

- Zer saltzen duzue zuek hemen?
- Hemen? —erantzun zion aingeruak—. Hemen den-denetik saltzen dugu.
- Hara! —esan zuen mutilak, zur eta lur—. Orduan, munduko gerra guztiak amaitzea nahi dut, tonaka maitasun gizakien artean, senideek elkar ulertzeko sekulako bidoia, denbora gehiago gurasoak haurrekin jolasteko...
- Eta horrela jarraitu zuen, harik eta aingeruak errespetu osoz eten eta hau esan zion arte:
- Barkatu, jauna. Ez dut ondo azaldu, uste dut. Hemen ez ditugu fruituak saltzen, haziak baizik.

### b) Gogoeta:

Egiazko uzta ez da ikusten den arrakasta (landare eder bat), **zintzotasuna** baizik.

Gutako bakoitzaren baitan "egundoko zuhaitz" baten hozia dago. Hazi ahal izateko, **pazientzia eta lur emankorra** behar dira (ingurune egokia). Hazi bakoitzak badaki jada nola eraldatu; bere esentzia adierazteko denbora eta baldintzak besterik ez du behar.

### c) Otoitza:

Jauna, haziak oparotasunez hozitu ahal izateko erregutzen dizugu, eta uzta oparoak emateko beti.

Landatu geure baitan zure maitasunaren hazia, eta eman iezaguzu maitasun hori jasotzeko lur emankorra den bihotz irekia.

Aita, gaur nire xedeari begirako hazi bat erein dut, fedez, jakinik ereintzaren eta uztaren legea abian dagoela beti.

Lagundu iezadazu egun bakoitza ez epaitzen biltzen dudan uzta kontuan izanik, baizik eta ereiten ditudan haziak kontuan izanik.

## 2. astea. 11/9:

### 1. baliabidea:

#### a) Motibazioa: Bizitzeko eskubidea.

Irudikatu dezakezu kalera irten eta zure bizitza arriskuan egotea? 2024an, 520 milioi haur gatazkak aktibo zeuden eremuetan bizi ziren: munduko bost haurretik bat baino gehiago. Kopuru hori % 60 areagotu da 2010az geroztik. Ekintza humanitarioa eskubide bat da eta bermatu egin behar da. Haurren babesa ezin da negoziagarria izan.

#### b) Abestia : Ska-P - *Niño Soldado* (Haur soldadua)

[https://youtu.be/tkKSnkCv\\_HM?si=IJmWKSXHN6DC8VYL](https://youtu.be/tkKSnkCv_HM?si=IJmWKSXHN6DC8VYL)

Abesti honek introspektzioa sustatzen du zaurgarritasunari eta egungo nostalgiari buruz. Tristura sotiltasun poetikoaren bitartez besarkatzea lagungarria da emozio negatiboak modu osasungarrian kudeatzeko. Agur esatean, zintzotasuna norbere buruarekiko eta bestearekiko maitasun eta samurtasun ekintza gisa aurkezten da.

#### c) Gogoetak:

Irudikatu dezakezu haur horietako bat izatea?

Zer emozio sentitzen dituzu abestia entzun eta gero?

Leloaren abestia entzungo dugu... Hausnarketa horretan, zerk konektatzen du ikasturteko gure abestiarekin? Parteka dezagun otoitza moduan.

### 2. baliabidea:

#### a) Otoitzerako motibazioa:

- Gogora ekartzea esker ona ez dagoela paisaiaren mende, begiratzen duten begien mende baizik.
- Existentziari kantu bat, oparia den heinean, eta Kreatzailearen eskua ikusiz taupada bakoitzean.
- Maitatzea jaiaren baretasunean eta itxaronaldiaren isiltasunean hartzen den erabaki bat delako.
- Poeman, bizitza maitatzeko konpromisoa azpimarratzen da, "gauzak kontra datozen" edo "bidea okertzen denean".
- Poemaren amaierarekin konektatzen du zuzenean ("zuk oparitzen diguzulako"; hartara, bizitza dohain gorenarekin dela aitortzen da.

#### b) Otoitza:

Bizitza maitatzea  
 Bizitza maitatzea  
 Gauzak kontra datozen,  
 Eta gaua luze egiten denean  
 Eta argia iristen ez denean.

Bizitza maitatzea  
 Egoera guztietan  
 Aro guztietan  
 Leku guztietan,

Bizitza maitatzea  
 Bazkalondo luze batean,  
 Isiltasun soinuaren batean  
 Eta itxaronaldi polit batean.

Bizitza maitatzea dena ondo doanean,  
Eta ospatzea egokitzen denean,  
Eta dena samurtasuna denean  
Eta egunero jaiegun denean.

Bizitza maitatzea  
Bidea okertzen denean,  
Eta zalantzak iristen direnean  
Eta ziurgabetasuna agertzen denean.

Bizitza maitatzea  
Taupada bakoitzean,  
Zuk oparitzen diguzulako,  
Dena, besterik gabe, zugandik datorrelako.

### 3. baliabidea:

#### a) Motibazioa:

Adiskidetasuna iragazkirik edo guraririk behar ez duzun aterpe segurua da. Kontua ez da nor ezagutzen duzun aspaldien, baizik eta nor dauden hor epaitu gabe entzuteko eta zure lorpenak haienak balira bezala ospatzeko.

Etengabeko aldaketen etapa honetan, lagunak funtsezko euskarria dira zure ongizate emozionalerako. Lagun on batek zure bertsiorik onena izan zaitezzen bultzatzen zaitu, eta eguneroko erronkei aurre egiteko balioa ematen dizu.

Gogoratu: kalitatea kantitateari gailentzen zaio beti. Inguratu zaitez zure bizitzari argia ematen dioten pertsonen, isiltasun partekatua ere primerako solasaldia dela dakiten pertsonen.

Zure egungo lagunak hazteko motibatzen zaituztela sentitzen duzu? Ala haiekin hobeto konektatzeko moduak bilatzen ari zara?

#### b) Gogoeta une horretarako, hurrengo abestia entzun dezakegu.

Abestia: *¿Por qué no ser amigos?* (Zergatik ez izan lagunak?) Hombres G (Dani Martínekin elkarlanean).

<https://youtu.be/rhgjEwe9Puw?si=EKxlqZ80i8CjjQW2>

- Bakerako deia: Gatazkak elkarriketaren bidez eta elkar errespetatuz konpontzeko gonbit egiten du.
- Beldurraren aurrean, batasuna: Errepikan, bat eginda egotearen garrantzia nabarmentzen da, "beldurrik gabe eta askatasunean bizitzeko". Beraz, bereizten gaituzten hesiak artifzialak direla iradokitzen du.
- Borondatea eta errespetua: Proposatzen du adiskidetasuna ez dela ausaz sortzen, baizik eta besteak maitatu eta errespetatzearen ondorioz, aldeak alde.
- Elkartasun unibertsala: "Elkarri eskua emateko" eta "anai-arrebak bezalakoak izateko" metafora erabiltzen du, gizartearen oinarria senidetasuna den mundu baten alde agertzeko.
- Laburbilduz, konfrontazioa zergatik hautatzen dugun galdetzera gonbidatzen gaitu abestiak, adiskidetasuna eta elkarlana askoz bidez eraikitzaileagoak baldin badira mundua aldatzeko.

#### c) Esker oneko otoitza:

"Jauna, nire lagunak aurkezten dizkizut, bedeinkatu eta zaindu ditzazun. Zuk badakizu zer sentitzen duten eta zer irrikatzen duten; egon beti haien ondoan. Erakutsi ezadazu haientzat prest egoten, behar nautenean, epaitu gabe entzuten, eta haien pozak ospatzen, nireak balira bezala. Eskerrik asko nire bidean jartzeagatik, nire ibilera argiztatuzeko".

### 3. astea. 11/16:

#### 1. baliabidea:

##### a) Motibazioa:

Denok dugu hezkuntzarako eskubidea. Hezteko modu asko daude. Garrantzitsuena eredu izatea da, eta denok gara beti norbaitentzako eredu, eskolan eta kanpoan.

##### b) Ipuina: *Printzea eta belatza*:

Bazen behin printze bat, ehizarako zerabilen belatz leial batekin joaten zena noranahi. Printzeak nola ehizatzen zuen arretaz begiratu zuen, ordea: bere espeziekoei ere eraso egiten zien. Eta aurpegiratu zion:

- Hegazti sendoa, bizkorra, argia zara... Eta zintzoa eta leiala ere bazinela uste nuen. Baina... Nola fida naiteke zurekin, zeure espeziekoei ere eraso egiten badiezu? Zergatik jokutzen duzu hain modu makurrean?
- Horrela jokutzen dut, egia da... Nire espeziekoei eraso egiten diet, aitzitik, zugandik eta zure ingurukoengandik ikasi nuelako... Zuek horrela aritzen zaretela ikusita, pentsatu nuen hori zela zuzena...

##### c) Hausnarketa: ipuinaren mezu nagusia:

- Unean uneko bulkadak eraginda jokutzen duenak negar egin ohi du damuaren isiltasunean.
- Egiazko jakinduria ez dago besoaren sendotasunean, bihotzaren pazientzian baizik.
- Ez zigortu ulertzen ez duzun hori. Zenbaitetan, iraina dirudiena leialtasun ekintza handia da egiatan.
- Hira egia ikustea eragozten digun estalki bat da, harik eta beranduegi den arte.

##### d) Neska-mutilentzako galderak:

Emozioari buruz: "Gertatu zaizue noizbait pentsatu gabe erreakzionatu eta, gero, gaizki sentitu izana horren ondorioz?".

Ikuspegiari buruz: "Belatzak hitz egiterik balu printzeak jardun aurretik, zer esango zion, zuen ustez?".

Barkamenari buruz: "Printzea bazinete, nola saiatuko zinatekete akatsa konpontzen? Galdutako konfiantza berreskura daiteke?".

Epaitzeari buruz: "Zergatik uste dugu arrazoia dugula, entzun aurretik edo istorio osoa ikusi aurretik?".

##### e) Azkar ixteko dinamika: "Erabakien semaforoa"

Eskatu ikasleei printzeak erabakia hartu aurre-aurreko unean pentsatzeko.

- Gorria: Zer seinalek gelditu beharko zuen?
- Horia: Zer pentsatu edo begiratu beharko zuen lasaiago?
- Berdea: Zein izango zen erabaki zuzena, konfiantzan oinarrituta?

#### 2. baliabidea: Haurren eskubideak.

##### a) Bideoa: Gutunak etorkizunari! Haurren Munduko Eguna 2024

<https://www.youtube.com/watch?v=Su47QvH3Dow>

##### b) Beren eskubideei buruz gogoeta egin eta etorkizunari gutun bat idatzi zioten, ametsak eta eraiki nahi duten munduaren ikuspegiak partekatzeko. Munduari haren begien bidez begiratzera gonbidatzen gaitu, itxaropena berreskuratzeke eta desberdin pentsatu eta jokatzeko kritikarako arrazoi ez den etorkizun bat lantzeko.

##### c) Galdera ikasleentzat: Zer mundu eraiki nahi duzu zuk?

**d) Otoitza:** Kanpaina honetan, beren ametsak eta ikuspegiak idazteko gonbit egiten zaie adingabeei, helduek ziurta dezaten adingabeen eskubideak mundu mailako lehentasuna diren ingurune bat.

*"Jauna, etorkizunari idatzi dizkiogun gutunak ez daitezela paperean jarritako desioak soilik izan, gaurko konpromisoa baizik, haur bakoitza bakea, berdintasuna eta eskubide babestuak dauden mundu batean hazten direla bermatzeko".*

### **3. baliabidea:** Haurren eskubideak.

**a) Motibazioa:** Motibazioa: Zu zara oraina:

Zure eskubideak ez dira etorkizunerako "paper" soila; gaur jarduteko zure tresna dira. Ez zara babestu behar den norbait soilik, baizik eta **eskubideen subjektu** bat, entzutea merezi duen ahots batekin. Zure iritzia defendatu, informazioa bilatu edo errespetua exijitzen duzun bakoitzean, zure errealitatea eta zure ingurukoena eraldatzen ari zara. Bizitza buru hausgarri bat da, eta zuk pieza berdingabeak dituzu: saiatzera ausartzen bazara soilik jakingo duzu zer egin dezakezun.

**b) Bideoa:**

Bideo honetan argi azaltzen dute zure eskubideak edozein arazoren aurrean atea zabaltzen dizkizuten giltzak direla; mesedegarria da eskubideak nola gauzatu ulertzeko eta besteenak errespetatzeko.

<https://www.youtube.com/watch?v=pHEidOrqPhE>

**c) Otoitza haur-nerabeentzat:**

Otoitz egingo dugu, mundu bidezkoago eta duinago baten aldeko konpromisoan inspiratuta:

*"Jauna, guztion Aita, eskerrik asko, denok jaiotzen garelako aske eta duintasun berdinarekin.*

*Gaur egun eskubideak urratzen dizkieten nerabe guztien alde otoitz egiten dugu. Ukitu aldaketak eragin ditzaketenen bihotzak, gure ahotsak entzunak izan daitezen.*

*Lagundu itxaropena hara-hona eramaten, jakindurian hazten eta gazte orok bizitza oparoa izan dezakeen mundu bat eraikitzen.*

*Amen".*

### **4. baliabidea:** Hezkuntzarako eskubidea.

**a) Motibazioa:** Ezagutzak libre egiten zaitu.

Irudikatu zure gogoak konkistatzeko dagoen lurralde bat dela. Hezkuntza ez da datuak buruz ikastea, zeure irizpidea eraikitzea baizik, inork ez dezan zure ordeaz erabaki. Irakurtzen duzun liburu bakoitza eta ikasten duzun abilezia bakoitza "giltza" bat da, desparekotasunak murrizten dituen eta benetan nahi duzun etorkizuna diseinatzeko aukera ematen dizuna, ez ausaz egokitzen zaizuna.

**b) Bideoa:**

Bide honetan erakusten da hezkuntzak pertsonak eta ametsak konektatzen dituela, eta gainerako eskubideak gauzatzeko oinarria dela:

<https://www.youtube.com/watch?v=82KNM4gel6c>

- Ikuspegi bisual honek aditzera ematen du zergatik den eskolara joatea ikasgaiak ikastea baino askoz gehiago: pertsona gisa garatzea eta hazteko ohitura bat edukitzea da.

**c) Gogoeta:** Ikasmahaia baino gehiago

Hezkuntzarako eskubidea edukitzeak esan nahi du estatuek hezkuntza ziurtatu behar dizutela, diskriminaziorik gabe.

Nola aprobetxatzen dituzu gaur eskura dituzun aukerak? Hezkuntza da gizarteak sendatu eta mundu bakezaleagoa eta berdinzaleagoa sortzen duen tresna.

**d) Otoitza:** zure ikaskuntza bidean gidaritza eskatzeko.

"Jauna, jakinduria ororen iturri, eskerrik asko ikasi eta arrazoitzeko eman didazun gaitasunagatik.

Ikasketetarako adimena eskatzen dizut, eta nire xedea ulertzeko argitasuna. Egon nire ondoan azterketa eta erronka akademiko bakoitzean.

Baina, batez ere, gerragatik edo pobreziagatik ikasi ezin duten gazteentzat erregutzen dizut; ikasteko duten eskubidea errealitatea izateko bideak zabaldu daitezela.

Amen

#### 4. astea. 11/23:

**1. baliabidea:**

**a) Motibazioa:**

Iritzia emateko eta entzuna izateko eskubidea. Denok errespetuz eta apaltasunez mintzatzeko aske sentitzea garrantzitsua da. Gure hitza garrantzitsua da. Ikusiko dugu zer dioen Jesusek hurrei buruz.

**b) Ebanjelioa:**

Hurbildu ziren ikasleak Jesusengana eta galdetu zioten: Nor da Jainkoaren erreinuan handiena? Jesusek, haur bati dei egin eta haien aurrera ekarririk, esan zien: Benetan diotsuet: Berriro haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko Jainkoaren erreinuan. Beraz, haur hau bezain txiki bihurtzen dena, hori da Jainkoaren erreinuan handiena.

(Mateo 18: 1-4)

**c) Gogoetak:**

Haurren zer bertute agertzen dira testuan? Eta zu entzuna sentitzen zara? Zure iritziak axola duela sentitzen duzu? Beste iritzi batzuk kontuan hartzen dituzu? Galderak binaka partekatuko ditugu, eta ondoren abestia entzun eta hitz bat esango dugu, nola sentitzen garen adierazten duena.

**d) Abestia :** Nil Moliner – *Libertad* (Askatasuna):

<https://youtu.be/OYQm6ryPZHg?si=5Ms3E7AKfvf5H3X8>

**e) Abestiari lotutako gogoeta:**

Nil Molinerren *Libertad* abestia orainaren eta autonomia pertsonalaren ospakizun sutsua da.

Nil Molinerrek abestia konposatu zuen oreka eta betetasun pertsonaleko une batean oinarrituta, ilunabarrean gidatzen ari zela.

Hitzez adierazten dute askatasuna ez dela katerik ez egotea soilik. Horrez gain, euforia leherketa bat da, beldurrak eta presio sozialak baztertzen ditugunean gertatzen dena.

Mezu nagusiak hau guztia azpimarratzen du:

- Kanpoko mugarik gabe bizitzea: Bizitza norbere desioei jarraituz egiteko oihua da, inposaturiko "eskemak" hautsirik.
- Erresilientzia bizitzaren jokoan: "Galtzen badut, berriz irabaziko dut". Esaldi horrek iradokitzen du ahaleginak duela balioa, eta ez emaitzak soilik.
- Konexioa ingurunearekin: Elementu naturalak baliatzen ditu (zerua, itsasoa, airea) hedapen osoaren eta itxaropenaren sentsazioa deskribatzeko.

Gogoeta egiteko galderak

- Autonomiari buruz: Egileak hauxe dio: "Nire taupadek adierazten dute konpasa".
- Zer neurritan uzten duzu zure emozioek gida ditzaten erabakiak, besteen espektatiben aurrean?
- Porrotari buruz: "Saiatzean dena ematen dut, eta horregatik egiten dugu distira", esaten du.
- Zure aburuz, ahalegina eta ausardia amaierako arrakasta baino baliotsuagoak dira?
- Eguneroko uneei buruz: Nil Molinerrek autoz zihoala aurkitu zuen inspirazioa, egunerokoan. Eguneroko zein jarduerak pizten dizute "askatasun osoko" sentrazio hori?
- Nork bere mugak gaintitzeari buruz: Abestia "eskemak hausten dituen leherketa" bat bada, zer oztopo dituzu buruan, zure ustez gaur eraitsi behar dituzunak askeago sentitzeko?

## 2. baliabidea:

Bizitzak, argi-itzalekin, kantatua izatea merezi duelako...

Batzuetan, hitzak falta dira eta musika sobera dago. Gaur, bertso hauei utziko diet zergatia azaltzen...

### a) Otoitza:

Kantatu nahi dut  
Kantatu nahi dut  
bizitza hasten da,  
batzuetan gelditzen nauten  
zalantzak isilpean kantatzea,  
eta zure malkoak  
musika bihurtzea.  
Bidezko balada bat  
egin nahi dut  
eta sanba bat,  
bakea mila hizkuntzatan  
ahoskatzeko.  
Barkamena  
runba bat bezala kantatzea  
eta itxaropena  
danbor eta tronpetarekin iragartzea.  
Fedea izan ditzala  
bolero baten hitzak  
eta zure historia,  
liluragarri eta paregabe,  
urte osorako  
gabon kanta izatea.

## 3. baliabidea:

### a) Motibazioa: Zure Oihartzunaren ahala:

"Zenbaitetan, hain da bortitza munduko zarata, ezen bakar baten isiltasuna guztiontzako galera dela ahazten baitugu. Zure ahotsa ez da soinu soila: zure nortasuna da, zure egia

eta zure ekarpen berdingabea. Denek hitz egiten duten mundu bat irudikatzen duzunean, ez dituzu deiadarrak irudikatzen, pieza guztiak sartzen diren harmonia baizik. Gaur, entzun ez ezik, espazio bat ere eraikiko dugu, entzuna izateko inork baimena eskatu behar ez duen espazio bat".

**b) Abestia:** *Ni más ni menos* (Ez gehiago ez gutxiago), berdintasunaren aldeko rapa.

Plena Inclusiónen abesti hau gogoeta honetarako ezin hobea da: bizitzak "berriz dirdiratzeko du", etxea guztiontzat denean eta batera amets egiteari uzten ez diogunean..

<https://www.youtube.com/watch?v=zTeOVpjUFml>

"Zeure 'ahotsaren' edo talentuaren zer zati sentitzen duzu ez duela munduak oraindik entzun, erakusteak beldurra ematen dizulako?".

**c) Otoitza:** Entzuten duten bihotzak.

"Jesus jauna, gure bihotzak irekitzeko eskatzen dizugu, gazte guztiak aurkitzeko, elkarren ondoan egoteko eta elkarrekin egoteko, komunitatean. Erakutsiezaguzu besteek diotenaren oihartzuna soilik ez izaten, itxaropen ahotsak baizik. Eman iezaguzu zure erreinua hemengo egiteko bihotz ausarta, han pertsona guztiak garrantzitsu izateko eta inor ez izateko ikusezin.

Amen".

## ABENDUA:

### HILEKO MOTIBAZIOA:

**Irudikatu dezakezu** egun bakoitza ilusioz itxaroten duen bihotz bat, Jainkoa datorrela bada-kielako? Abendualdia hastera doa. Jesus iristeko prestatzen gara. Bitartean, arreta berezia jarri behar da itxaronaldi alaian, itxaropenean, eskuzabaltasunean eta esker onean.

### 1. astea. 11/30-12/1:

#### a) Motibazioa:

**Irudikatu dezakezu** itxaropena ez galtzea?

*"Motibatu zeure burua Jainkoaren aldetik zerbait ona datorrelako ziurtasunez bizitzeko. Kontua ez da modu pasiboan itxarotea, zeure burua fedez eta konfiantzaz prestatzea baizik".*

#### b) Justifikazioa:

Abendualdia ez da Gabonetara arteko atzera kontua soilik: horrez gain, fedez beteriko itxaropen jarrera lantzeko garaia ere bada. Mundu honetan, estutasuna edo etorkizunari beldurra gailentzen dira maiz. Horiek horrela, motibazio honek itxaropen fidakorra berreskuratze-  
ra gonbidatzen gaitu: ez da itxaropen pasiboa, baizik eta bihotza prestatzen bizitzea egun bakoitza, Jainkoak gudan egin nahi duen horretarako.

Jainkoaren aldetik zerbait ona datorrela sinestea bizitzari begiratzeko modua eraldatzen duen indar bat da: zentzuz jardun gaitzen mugitzen gaitu, barruan haz gaitzen, ilunpe-  
tan argiak piztu ditzagun. Zeren, fedez itxaroten duena jada hasi da bizitzen espero duena.

### 1. baliabidea:

#### a) Otoitza:

Ebanjelioaren irakurketa, San Mateoren arabera (24, 37-44):

Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan. Uholdearen aurretik, jan-edanean ziharduena eta ezkondu egiten zen jendea, Noe ontzian sartu zen arte; eta ez ziren konturatu, uholdea iritsi eta denak eramane zituen arte. Gauza bera gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Soroan izango diren bi gizonetatik, bata eramane eta bestea utzi egingo dute; errotan ehotzen ariko diren bi emakumeetatik, bata eramane eta bestea utzi egingo dute. Zain egon, beraz, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Gogoan hartu hau: etxeko nagusia, lapurra gaueko zein ordutan etorriko den jakingo balu, zain egongo litzateke eta ez luke etxea zulatzen utziko. Prest egon, bada, zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.

#### b) Dinamika: Itxaropen aktiboz itxarotea "Gutuna datorren horri"

Materialak: Orriak, gutun azalak, boligrafoak, kandelak (hautazkoa)..

Garapena:

1. Gonbidatu ikasleak gutun bat idatz diezaioten Jesusi, Gabonetan haien bizitzara etorriko balitz bezala, benetan eta modu zehatzean.
2. Adierazi ditzatela beren itxaropenak, eskaerak, beldurrak eta irrikak.
3. Ondoren, gutun azal batean gordeko dute, bakoitza bere izenarekin, eta piztuta dagoen kandela baten ondoan jarriko (itxaronaldi ernearen sinboloa).
4. Hautazkoa: gutunak Gabonetan edo abendu amaieran ireki daitezke.

Helburua: Itxaropena lantzea, jarrera aktibo, fidakor eta pertsonal gisa.

### 2. baliabidea:

a) **Abestia:** Adviento (Abendualdia) / Egilea:

<https://www.youtube.com/watch?v=ngM-EVP6INs>

b) **Gogoeta:** Zer esan nahi duen abendualdiak kristau batentzat: aldaketak, barrura begirako uneak, eguneroko erosotasunetik irtetea besteekin topo egiteko.

### 3. baliabidea:

a) **Abestia:** Diego Torresen Color esperanza abestia (Itxaropen kolorea).

[https://www.youtube.com/watch?v=Nb1VOQRs-Vs&list=RDNb1VOQRs-Vs&start\\_radio=1](https://www.youtube.com/watch?v=Nb1VOQRs-Vs&list=RDNb1VOQRs-Vs&start_radio=1)

b) **Gogoeta:** nork bere mugak gaintitzea, baikortasuna eta, bizitzako oztopoen aurrean, fedari eta ausardiari eustearen garrantzia, adore emanek beldurrak atzean utzi eta etorkizun hobea bilatzeko. Ekiteko, amore ez emateko eta "aurpegia itxaropen kolorez margotzeko" gonbit egiten duen ereserki inspiratzailea da, erronkei jarrera positiboz aurre egiteko.

## Semana 2. 7/XII:

a) **Motibazioa:**

**Irudikatu dezakezu** zure barnea ikusi ahal izatea?

b) **Justifikazioa:**

Abendualdia barrura begiratzeko deia da. Etenaldia egin eta galdera hauek egiteko garai pribilegiatua da: zer daramat bihotzean, askatzeko beharra dudana? Jada zer jarrerak, pentsamenduk edo ohiturak ez naute onbideratzen?

Barrukoa berritzeak ez du esan nahi perfektuak izatea, baizik eta Jainkoari uztea gure eremu zauritu, itzali edo desordenatuetan sartzen. Arima garbitzea da, funtsezkoa denerako espazioa uztea, eta ateak zabaltzea bakeari eta Hark soilik ekar dezakeen argiari. Bihotza prestatzea Gabonetarako prestatzeko modurik onena da.

### Recurso 1:

a) **Otoitza:**

Ebanjelioaren irakurketa, San Mateoren arabera (3, 1-12):

*Garai hartan agertu zen Joan Bataiatzailea Judeako basamortuan, bihozberri zitezen hots eginez, gainean baitzuten Jainkoaren erregetza. Joanek gamelu ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko, eta jendea bataiatu egiten zuen Jordan ibaian. Fariseu eta saduzearrak heldu zirenean, "sugekumeok" deitu zien, eta haien jokabideaz bihozberritu agertu behar zirela ohartarazi, ez soilik "Abrahamen ondorengo gara" esatea. Esan zien fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako dela. Joanek iragarri zuen haren ondoren zetorrena bera baino ahaltsuago zela, eta hura ez zela inor hari oinetakoak erantzeko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan dauka sardea, esan zien, eta garaia garbitzera doa: : alea mandioan jasoko du; lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko. Horrela prestatzen zuen Joanek bidea Jesusen etorrerako.*

b) **Dinamika:** Berritu zure barrua "Arimaren motxila"

Materialak: Benetako motxila, harriak, papera, markatzaileak.

c) **Garapena:**

1. Erakutsi harriz beteriko motxila bat. Harri bakoitzak bihotza zamatzen duen zerbait irudikatzen du: beldurrak, haserreak, egoismoa, alferkeria, herra, etab.
2. Eskatu partaideei barruan askatu edo aldatu behar dutena paper zati batean idazteko.
3. Bakoitzak bere paper zatia irakurri ahala, jarri harri bat motxilatik kanpo, modu sinbolikoan..

4. Azken gogoeta: Pisua askatzean, nola sentitzen da arima? Zer espazio uzten du libre Jainkoak jarduteko?

Helburua: Hausnarketa eta pertsona gisa hobetzen eta hazten jarraitzeko desioa sustatzea.

## Recurso 2:

a) **Abestia:** La pegatina - *Y volar* (Eta hegan egitea) (Caligarisekin elkarlanean)

[https://www.youtube.com/watch?v=Kq-8V6RNOfM&list=RDkq-8V6RNOfM&start\\_radio=1](https://www.youtube.com/watch?v=Kq-8V6RNOfM&list=RDkq-8V6RNOfM&start_radio=1)

Entzungo dugun abestia ez da musika soilik... Bihotzaren eta memoriaren arteko solasaldi bat da egiaz. Zeure buruari inoiz galdetu badiozu nor geratzen den guztia amaitzen denean, abesti honek zer esana du zuretzat. Itxi begiak, eta utzi abesti honi kontatzen hitzek kontatu ezin dutena.

Abesti batzuek gehien behar dugun lekuan bertan aurkitzen gaituzte... Jarri arreta abesti honetan.

Entzungo duzuna ez da melodia soila... Arimarako xuxurla bat da.



## 3. baliabidea:

a) **Otoitza:** Gaur gure barruan jarriko dugu arreta. Otoitz egingo dugu.

Jaun maitea, mesedez, utz iezadazu abendua besarkatzen elizak nahi duen moduan: Zure etorrerarako prestatzeko modu baten gisara. Egiten dudan guztiak —bidaltzen dudan opari orok, joaten naizen jai orok, partekatzen dudan otordu orok— gogora ekar diezadala espazio bat prestatu behar dudala Zuretzat nire baitan.

Amen.

Zeruko Aita, sendatu nire bihotza abendualdi honetan. Lagundu modu beteagoan maitatzen. Modu eskuzabalagoan barkatzen. Gabonen zain pazientzia handiagoz egoten, egun eta ordu bakoitza besarkatzen, zain dugun poza gogoan. Zure izenean erregutzen dizut. Amen.

Gaur, ni bideratzeko eskatzen dizut, Jainko maitea, zeren nire gogoak eta arretak zeharka aritzeko joera baitute abendualdian. Distrakzio ugari daude; asmo onez, horietako asko. Baina ezerk ez dio atsedena ematen nire bihotzari, ez Zugan atsedean hartzeak bezainbeste. Nire gaurko egunean erdian egon zaitezzen erregutzen dizut, Zuk soilik eskaintzen duzun bakea ezagutzen dudalako. Amen.

### 3. astea. 12/14:

#### a) Motibazioa:

**Irudikatu dezakezu** tristura gabeko mundu bat?

"Bizitza harrigarria izan daiteke, adi baldin bazaude. Aurkitu poza gauza txikietan, eta egon Jainkoak eman nahi dizuna jasotzeko prest".

#### b) Justifikazioa:

Abendualdia zain egon beharreko garaia da, baina, orobat, lasaitasunez pozik egon eta adi behatzeko denbora da. Jainkoa gauza txikietan agertzen da askotan, eguneroko gauzetan, ustekabeoketan... bihotza erne daukanak soilik ikusten du hori, ordea.

Motibazio honek oroitarazten digu arimaren begiak zabalik edukita bizi baldin bagara, itxaropen seinaleak eta pozerako arrazoiak aurkitu ditzakegula zailtasunen erdian ere. Kristauen adi egotea ez da beldurra, prestasuna baizik; eta poza ez da euforia, konfiantza sakona baizik. Era horretan soilik egongo gara Jainkoak eman nahi diguna jasotzeko prest.

### 1. baliabidea:

#### a) Otoitza:

Ebanjelioaren irakurketa, San Lukasen arabera (3, 10-18):

*Jendeak galdetzen zion Joani: —Zer egin behar dugu, bada? Hark erantzuten zien: —Bi soineko dituenak eman diezaiola bat jantzirik ez duenari, eta jatekoa duenak ere bana dezala. Joan ziren zergalari batzuk ere bataiatzera eta galdetu zioten: —Maisu, zer egin behar dugu? Hark erantzun zien: —Ez kendu inori legezko dena baino gehiago. Soldaduek ere galdetu zioten: —Eta guk, zer egin behar dugu? Joanek erantzun zien: —Ez atera inori dirurik gogorkeriaz, ezta gezurrezko salakuntzaz ere; konforma zaitezte daukazuen soldadarekin. Herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen Joan ez ote zen Mesias izango. Joanek, ordea, denen aurrean esan zuen: —Nik urez bataiatzen zaituztet, baina badator ni baino ahaltsuago dena, eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan du sardea garbia eta alea bere mandioan jasotzeko; lastoa, berriz, inoiz itzaliko ez den sutan erreko du. Honela eta beste burubide askoren bidez adierazten zion berri ona herriari.*

#### b) Dinamika: Mantendu poza eta arreta pizturik: "Opari ezkutua"

Materialak: Oparitarako kutxa, pozari edo erne egoteari buruzko Bibliako esaldiak paper zatitxoetan, kronometroa.

#### c) Garapena:

1. Ezkutatu oparitarako kutxa bat ikasgelan, hura aurkitzeko arrastoekin. Arrastoak frogatzen izan daitezke; adibidez, asmakizunak, txatal ezkutua edo erronka txikiak.
2. Bitartean, abendualdiko edo Gabonetako musika alaia entzungo da.
3. Kutxa aurkitzen duenak, paper zatitxoak banatuko ditu. Esaldi batzuk hauek izan daitezke:
  - "Poz zaitezte Jaunarengan beti!" (Fil 4, 4).
  - "Zaudete erne eta egizue otoitz" (Mt 26, 41).
  - "Ez izan beldur, zeuekin bainazue".

Helburua: Kristauen poza eta arreta espiritualala batera doazela erakustea. Bizitza opari bat da, erne bizitzean ikusten dena.

#### d) Abestia: Mary, did you know?:

[https://www.youtube.com/watch?v=ifCWN5pJGIE&list=RDifCWN5pJGIE&start\\_radio=1](https://www.youtube.com/watch?v=ifCWN5pJGIE&list=RDifCWN5pJGIE&start_radio=1)

Abestia entzun aurretik, gelditu une batez eta pentsatu: zenbat bider ez ditugu aintzakotzat hartu gure itxaropenari eusten dioten eguneroko mirariak? Melodia honek bihotza

zabaltzera eta agian ederrena ere ezkutatuta egon dela gogoratzera gonbidatzen gaitu, harik eta sinestea erabakitzen dugun arte.

## Recurso 2:

### a) Otoitza: "JAINKOA ZUREKIN"

Jainkoa jaio zenean,  
zeruak bere norabidean jarraitu zuen:  
ez artizar dirdaitsurik ez izar iheskorrik.

Jainkoa jaio zenean,  
Unibertsoa ez zen grabitazio handikerietan ibili,  
ez zen lurrikararik izan, ez zen ezkilarik jo.

Jainkoa jaio zenean,  
eguna beste edozein egunetan bezala esnatu zen:  
gorrotoa ez zen amaitu eta gizakiak ez ziren dotore jantzi.

Zeren, Jainkoa jaio zenean,  
letra bakan batzuk zezeldu besterik ezin izan zuen egin:  
Zure izena!

Bai, lagun, Jainkoa jaio zenean,  
zurekin gogoratu zen eta zure izenez deitu zizun...  
Eta horrela jarraitzen du Gabonez Gabon.

Jainkoa aurten jaiotzen denean,  
baldinbaitere zure izena entzungo ahal duzu... Zoragarria litzateke!

Orduan bai, zerua  
egundoko argi batez beteko da,  
eta ilunpe zantzu oro uxatuko du,  
Lurrak dar-dar egingo du,  
mundua dotore-dotore jantziko da  
eta zu... kantatzen aurrena izango zara:

*"Aintza Jainkoari zeruetan*

*eta bakea gizakiei, Gabon hauetan*

*Haur-Jainkoaren ezpainetan beren izena entzuten dutenei".*

### b) Pentsatzeko:

1. Jainkoa jaio zenean ez zen ezer nabaritu... Mendeetan zehar eta orain, ordea, nabaritzen da. Nola?
2. Gabonetan, mezu trukea gertatzen da. Hau izan liteke zorion txartel baterako testua? Eta beste bat idatziko bagenu, bakarka edo taldetan?

## 1. URTARRILA: (hileko Jela)

**HILEKO MOTIBAZIOA:** Irudikatu dezakezu... besteentzako bakea izatea?

Hil honetan bakearen eguna ospatuko dugu. Eta, maristak garen aldetik, ezin dugu gure one-na jartzeko aukera galdu, mundu hobe eta bidezkoagoa eraikitzeko. Gure mundua sufritzen ari da: gerrak, gosea, bidegabekeriak... Gure esku dago mundu baketsu bat eratzeko aukera, hurkoa maitatzeko aukera, Jainkoak agindu zigun bezala. «Nik ezin dut gerra bat gelditu», pentsatuko duzu agian. Aitzitik, adiskide bati lagundu diezaiokezu, entzuten dakien ikaski-dea izan zaitezke, edota anai-arreba ulerkorra, taldeko jokalaria ona, beharra duenarentzat hor dagoen norbait, edota gaizki-ulertu batean bitartekotza egiten duen norbait... Horrekin guztiarekin, besteek zugaran bakea ikusiko dute.

### • Urtarrilaren 11ko astea:

**a) Motibazioa:** Bidea partekatzea.

Zenbaitetan, bakarrik ibiltzea ondo dago: zure erritmora zoaz, zure musika entzuten duzu, zure gauzetan pentsatzen duzu. Beti bakarrik ibiliko bagina, ordea, bidea oso aspergarria izango litzateke... eta zailagoa.

Bakearen leloaren pean bidea beste batzuekin partekatzea gelako edo taldeko jendea "jasatea" baino gehiago da. Besteei ikaskide gisa begiratzen ikastea da, arerio gisa begiratu beharrean. Inor ez da perfektua: denok huts egiten dugu, denok ditugu egun txarrak, denok esan edo egin dugu gerora damutu zaigun zerbait. Horregatik, bakea oso gauza txikietan hasten da: iseka egin gabe entzutea, irainka ez erantzutea, barkamena eskatzea, berria den norbaiti taldera sartzen uztea.

Batera ibiltzen garenean, aldeak errespetatzen ikasten dugu: gustuak, pentsamoldeak, kulturak, ideiak. Helburua ez da denok berdin pentsatzea, baizik eta gure arteko aldeek gu ez banatzea: aberastuko gaituzte, aitzitik. Bakea dagoen talde batean, zaren bezalakoa izateko seguru sentitzen zara.

**b) Baliabideak:** dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

**c) Sarrera:**

Gutako bakoitzak bere bidea egiten du, eta, ibilbidean zehar, hainbat pertsona ditugu ondoan. Nolanahi ere, badaude batzuk gure ondoan daudenak beti. Nor dira?

**d) Abestia:**

[https://youtu.be/D64WSduyeKI?si=dpt9epHjDF\\_M7UPn](https://youtu.be/D64WSduyeKI?si=dpt9epHjDF_M7UPn)

**e) Dinamika:**

Gogoeta egiteko geldituko gara:

- Norantz nahi duzu zure bideak jotzea?
- Zure ondoan norbait dagoela sentitzen duzu?
- Bidaia horretan, nor doa zurekin?
- Noren ondoan zaude zu?

### • Urtarrilaren 18ko astea:

**a) Motibazioa:** Gatazkak konpontzea

Gatazkak bizitzaren parte dira: etxean, ikasgelan, lagunekin, taldean... Eztabaidatu egiten dugu, haserretu egiten gara, minduta sentitzen gara. Hori normala da. Arazoa ez da gatazkak egotea, baizik eta zer egiten dugun gatazkekin.

Gatazka bat baketik konpontzeak ez du esan nahi beti dena "irenstea" edo besteak zure gainetik pasatu daitezen uztea. Aitzitik, min eman gabe hitz egiten ikastea da, entzuten ikastea —nahiz eta kostatu—, sentitzen duzuna esaten ikastea, oihu egin gabe edo begirunea galdu gabe. Halaber, barkamena eskatzera eta barkatzera ausartzea da, nahiz eta harrokeriak kontrakoa adierazi.

Gatazka bat ongi konpontzen denean, denok hazten gara: taldea indartzen da, konfiantza areagotzen da eta giroa lasaitzen da. Arazoak "alfonbra azpian" uzten ditugunean, aldiz, haserrea barruan geratzen da eta beste forma batzuk hartuta irteten da azkenean: irainak, iseka, axolagabekeria.

Bakea ez da arazorik ez egotea, baizik eta arazoei beste era batera heltzen ikastea. Beharbada, gatazka bat daukazun hurrengoan, galdera hau otuko zaizu: "Arrazoiak eduki nahi dut... ala pertsona horrekin bakean bizi nahi dut?". Batzuetan, bakea hautatzea da ausardiaren egiazko zeinua.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

## b) Ipuina:

### BI AHUNTZAK

Bi ahuntz ibai batek bereizitako mendi batean zehar zihoazen. Bi ahuntzek taldea utzia zuten, mundua miatu nahi zutelako. Baina ahuntzetako bat ibaiaren alde batean zegoen, eta bestea, kontrako aldean. Ibaia zeharkatu zitekeen ibaiaren alde batetik bestera zihoan enbor baten gainetik. Enborrak bi muino lotzen zituen. Enbor zaharraren gainetik aldi berean pasatzea erabaki zuten bi ahuntzek. Zoritxarrez, erdi-erdian egin zuten topo. Orduan, elkarri begira geratu ziren, erronkari:

- Kendu paretik, ahuntza! Pasatu beharra daukat eta ni indartsuagoa naiz! —esan zuen ahuntzetako batek.
- Zergatik baztertu behar dut nik? —erantzun zion besteak, zirkinik egin gabe—. Ez zara ni baino indartsuagoa. Eta, jakina, ez zara ni baino egoskorragoa.
- Kentzen ez bazara, ez zu, ez ni ezin gara pasatu —esan zuen orduan lehen ahuntzak.
- Horixe ba! Hori esan dut. Beraz, hobe duzu paretik kentzea —erantzun zuen beste ahuntzak, temati.
- Ezetz esan dizut... Utzi pasatzen!
- Ni pasatuko naiz aurrena!
- Ezetz!
- Kendu paretik behingoz!
- Ez eta ez. Kendu zu.

Horrela jarraitu zuten tarte luze batez bi ahuntz setatiek, pixkatxo bat ere amore eman gabe. Azkenean, nekatuta, biak indarrez igarotzen saiatu ziren, besteari adarrekin joz. Eta biek indar berdina zuten, ibaira erori ziren azkenean. Ibaiaren korronteak ahuntzak eramantzen zituen, eta inork ez zituen berriz ere ikusi.

## c) Gogoetak:

- Nola konpondu ohi dituzu gatazkek?
- Zure iritziz, zein da gatazkek konpontzeko modurik onena?
- Burura etorri zaizu konpondu ez duzun gatazkaren bat?
- Gaurko helburu bat izan daiteke aurrera egitea eta bizitzan oraindik aktibo daukazun gatazkaren bat konpontzea.

Barkamena  
Ibilian jarraituko dugu,  
porrotez eta kolpez harago.  
Maitatzen jarraituko dugu,  
bakardadeak eta desertzioak gainditzen.  
Historiak jarraituko du,  
memoria betea eta itxaronaldia pairugabe,  
zer etorriko den zain.  
Sakabanaturik dauden zatiak batuko ditugu,  
amets zatiak.  
Beso zaurituak estutuko ditugu.  
Zazpi milatan zazpi aldiz altxatuko ditugu begiak  
eta bideari berrekingo diogu.  
Beste batzuekin batera,  
haiek ere hauskor,  
indartsu,  
humano,  
ildoak egingo ditugu  
lur emankorreetan  
hezur-haragizko ebanjelioa  
ereiten jarraitzeko  
irrika sakonenekin ureztatuta,  
eta bizitza haziko da, geldiezin.

### • Urtarrilaren 25eko astea:

#### a) Motibazioa: Bakearen Eguna

Aste honetan, Bakearen Eguna izango da hilaren 30ean. Horregatik, bakean modu berezian pentsatzeko garaia da: ez diskurtso perfektuekin, baizik eta gu bezalako benetako jendearekin.

Bakea ez da emoji bat, ez da hormako marrazki bat: bakea jolastokian, gelan eta WhatsA-ppeko taldean nabari da.

Badakigu zer den marista izatea: gauzak Mariak eta Martzelinok bezala egiten saiatzea, hots, modu apal eta hurbilean.

Bakea dago, huts egiten duenari barre egiten ez badiozu, eta min ematen ez baduzu "txantxa egiteko".

Bakea dago, "pasatu egin naiz" esateko gai bazara eta konpontzen baduzu.

Bakea dago, nor dagoen bakarrik ikusten baduzu eta harengana hurbiltzen bazara.

Bakoitzak bere aletxoak jartzen badu, eskola hau hobeto eta bakean bizitzen den leku bat izan daiteke.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

#### b) Ebanjelioa:

**"Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko".**

*Zeuen aldetik eta ahal den neurrian, izan bakean guztiekin (Erromatarrei XII, 18). San Paulok bakezale aritzera bultzatzen dituenean Erromako fededunak, ez die agintzen adiskidetasun adierazpenek elkarrekikotasuna jasoko dutenik beti. "Zeuen aldetik eta ahal*

den neurrian". Hurkoarekin bakean bizitzeko, bik nahi izatea behar da. Apostoluak bere bizitzako harreman arruntak besterik ez baitzuen gogoan. Zer gertatuko da bake publiko mantendu behar denean, Lurreko herri guztietan? Alabaina, beldurrak edota porrot egiteko aukerak ez dira aitzakia kristau bat guztia egiten ez saiatzeko, munduan bakea gailendu dadin dena egitera ez ausartzeko. Izan ere, horrela jardunez soilik mereziko dute Jainkoak seme-alabatzat hartzea.

Noiz transmititzen du Jesu Kristok bakea? Norekin? Arerioekin ere elkarriketan aritu zen, apostoluekin eztabaidan, tira-bira eta sufrimendu uneetan...

**c) Gogoetak:**

- Noiz eta norekin transmiti dezakezu bakea?
- Zer egin dezakezu zuk gaur, inguruan bakea egoteko?

**d) Abestia:**

<https://youtu.be/QUnw5mISbvg?si=No2GTSLn-fcE4q2f>

## 2- OTSAILA: (Hausterre Eguna, otsailak 18)

### HILEKO MOTIBAZIOA: Irudikatu dezakezu... eraldatzen duen maitasun bat?

Irudikatu dezakezu zure bizitza barrutik eraldatzen duen eta bihotzak irekitzeko gai den maitasun bat?

Inposatzen ez den maitasuna da, askatzen gaituena eta zentzua itzultzen diguna, pertsona bakoitzaren barnean berriz sinesteko gaitasuna berriro sortzea eragiten duen maitasuna. Sentimendu horrek gure baitatik irtetera bultzatzen gaitu, besteengana hurbiltzeko, eta barkamenaren indar bihurtzen da, adiskidetze energia eta bakearen hazi. Begiradak aldatu, konfiantza piztu eta senidetasuna eraikitzen du. Kristoren maitasun horrek itxaropenaren zeinu bizi izateko dei egiten digu, eguneroko keinuen bidez.

### • Otsailaren 1eko astea:

#### a) Motibazioa:

Pentsatu al duzu inoiz zer helburu dituzun bizitzan? Orainak hautatzeko, erabakitzeko, aukera ematen digu. Ikas dezagun iraganetik, eta zerbait aldatzea nahi badugu, ekin die-zaiogun.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

#### b) Abestia:

*Something just like this* - The Chainsmokers & Coldplay

[https://www.youtube.com/watch?v=OpC26XCefgl&list=RDOpC26XCefgl&start\\_radio=1](https://www.youtube.com/watch?v=OpC26XCefgl&list=RDOpC26XCefgl&start_radio=1)

#### c) Dinamika:

Labur hausnartu ondoren, partekatu ikaskideekin binaka, eta entzun besteen iritziak.

Nola nago gaur? Nola nahi nuke egunaren amaierara iritsi? Zer egin behar dut horretarako?

### • Otsailaren 8ko astea:

#### a) Motibazioa:

Gure bihotza gogortzea eragiten duena atzean uzteko ordua da. Irudikatu gure baitatik irteteko eta besteenganantz proiektatzeko garaia dela, atzean utz dezakeguna gogoan hartuz.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

#### b) Testua:

– Biblia, Mateo 6, 16-18

<https://biblia.pastoralsj.org/#Mat,6>

Barau egitean, ez zaitezte ager kopetilun, itxurazaleek ohi duten bezala: aurpegia itsus-ten dute, barau egiten dutela jendeari azaltzeko. Benetan diotsuet: hartua dute beren ordaina. Zuk, ordea, barau egitean, igurtzi lurrin gozoz burua eta garbitu aurpegia, zure barauaz jendea ohar ez dadin, ezkutuan dagoen Aita baizik. Eta ezkutukoa ere ikusten duen zure Aitak emango dizu ordaina.

Gutako bakoitzaren baitan aldatu edo hobetu dena gogora ekartzean, irudikatu dezake-zukexatzeari uztea?

Jabetu zeri buruz kexatzen zaren: ez zait gustatzen, eskubidea daukat, lortzeko lan egin dut, beti gauza bera egiten didate, kasu egingo balidate...

Badakizu kexa zure kontra itzul daitekeela, handiagoa delako egunez egun, eta ozpin-du zaitezke azkenean. Horiek horrela, baliteke errealitatearen aurrean bidegabe jokatzera edo, are, norbaiti min ematea.

Irudikatu eskerrak ematen dituzula, kexatu beharrean. Esker onetik begiratzen baduzu eta aitortzen baduzu konturatuko zara ikuspegi berri batetik begiratuko diozula kexa eragiten zizun horri. Eta gauza batzuk aldatzeko ere irekiko dizu gogoia.

**c) Abestia:** Louis Armstrong - *What A Wonderful World*

<https://www.youtube.com/watch?v=RTdyOHICymE>

Pentsatu zer duzun inguruan, bizitzan eskertzeko modukoa.

Zerk eragiten du mundua zoragarria izatea? Nola laguntzen dut nik horretan?

**d) Otoitza:**

Aita maitea, bihotza esker onez betea nator zugana gaur, zure bedeinkapen guztiak direla eta. Eskerrik asko bizitzaren dohainagatik, osasunagatik eta energiagatik, egunez egun sentitzeko aukera ematen baitidate. Eskerrik asko, halaber, ikusten dudana eguzkiagatik eta arnasten dudana aireagatik.

**• Otsailaren 15eko astea:**

**a) Motibazioa:**

Aste honetan, Garizuma hastera doa Hausterre Egunaekin. Garai hau norbere bihotzaren egoera ezagutzera bideratu behar dugu: gogortu zait bihotza? Non ikus dezaket hala ote den? Nola aldatu ditut sentimenduak familiakoekiko, lagunekiko, neure buruarekiko? Irudikatu pentsamendu negatibo horiek guztiak alda daitezkeela.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

**b) Bideoa:**

Hausterre Eguna | VOCES ESEJOTA 1:42 minutura arte

**c) Testua:**

Garizuma, laburbilduz, "gutxiago gehiago da". Ni txiki egiten noa, Jainkoa handi egiteko nire baitan. <https://pastoralsj.org/cuaresma-menos-es-mas/>

**• Otsailaren 22ko astea:**

**a) Motibazioa:**

Bizitzen duguna eta gure esperientziak ikusita, bide desberdinetatik garamatzaten erabakiak hartu behar ditugu. Hala ere, agian ez gara gelditzen, ez dugu aztertzen edo pentsatzen zer ondorio dituzten gure erabakiek. Aste honetan hausnartuko dugu orain arte bizitakoaren zer alderdi gustatzen zaidan gehien edo gutxien.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

**b) Testua:**

Inauteria eta San Valentin dira hil honetara indarrez eta protagonismoz heltzen diren bi festa. Espazio garrantzitsua esleitzen zaie, kontsumista, eta ez du zerikusirik horien jatorri posiblearekin. Laburrean, inauteria aukera bat zen batera ospatzeko eta haragia jateko, Garizuma hasi aurretik. San Valentin, aldiz, III. mendeko erromatar apaiza izan zen, bikote kristauak isilean ezkontzen zituena, antza denez.

Egoera horretan, Garizuma leunki eta isilean dator. Garizuma hiru hitzetan laburbildu daiteke: GUTXIAGO GEHIAGO DA. Gure bizitzan erruz dagoena murriztea edo kentzea (haragia eta gure ustez egin ditzakegun beste barau batzuk), Jainkoari emandako denbora zaintzea (otoitza) eta hurkoarentzako zerbitzua, modu eta keinu askoren bidez (limosna).

Hitz batez, ni txiki egiten noa, Jainkoa handi egiteko nire baitan. Berez, sakrifizioaren xedea ez da sakrifizioa bera, baizik eta ohartzea nire txikitasuna eskainiz eta besteengana irekiz Jaunarengandik hurbilago egongo naizela, baita lagun, familiako eta ezagunengandik hurbilago ere.

**c) Otoitza:**

Zer alda daitekeen pentsatuz bizitzea eta, horrez gain, bizi dugun horretatik ikastea:

"Jauna, erakuts iezadazu bizi dudan horretatik ikasten. Bizitza nigan arrastorik utzi gabe ez dadin pasatu ikasten. Izenak memoria emankorrei lotuta gera daitezen ikasten. Erakuts iezadazu ondo eginaz eta okerraz ikasten. Azken boladan hazten lagundu didan horretatik eta aurrera egitea eragotzi didan horretatik ikasten. Erakuts iezadazu porrotak onartzen eta garaipenak ospatzen gizatasuna galdu gabe. Eman iezadazu, Jauna, beharbada bidegabea izan den hori oroitu, eskertu eta hargatik barkamena eskatzeko gauza den memoria".

**d) Abestia:** *Viva la vida* – Coldplay. Kopiatu eta itsatsi esteka:

<https://youtu.be/dvgZkm1xWPE?si=VIye3UbCrrVxLqly>.

(Gaztelaniazko azpitituluak jartzea komeni da).

### 3- MARTXOA:

**HILEKO MOTIBAZIOA:** Irudikatu dezakezu... hutsetik hastea?

Aizu! Ez da ezer gertatzen... HUTSETIK HAS ZAITEZKE!

Beti dugu aukera hori, hasten den egun bakoitzarekin, eta bereziki martxoan, Garizuman zehar aurrera egiten jarraitzen dugu eta. Garai honek berriz hastera gonbidatzen gaitu; gelditzera, gure baitan begiratzera, borragoma bat hartu eta astun gertatzen zaigun guztia ezabatzen. Garizuma bihotzerako entrenamendua da, eta hartan zehar aldatzen ikas dezakegu, guztiz ondo atera ez zena ezabatu eta indar handiagoz altxatu. Jainkoak beti ematen digu —eta emango digu— berriz hasteko behar den itxaropena. Zamak askatzeko gauza bazara eta egun bakoitza hobea izan daitekeen konfiantza baduzu... berriz hasi zara jada. ALTXATU!

#### • Martxoaren 1eko astea:

##### a) Motibazioa:

Egun on esanez hasiko gara. Eta nola gauden edo nola sentitzen garen pentsatuko dugu, garrantzitsua delako hori gogoan izanda hastea eguna.

Egun hauetan, Garizumaz gozatuko dugu. Zer da egiaz Garizuma, ordea?

1º) Galdera ozen egingo dugu.

2º) Bideoa jarriko dugu.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

##### b) Bideoa: 2025eko Garizuma: historia, esanahia eta gida, fedez eta xedez bizitzeko

<https://www.youtube.com/watch?v=oTO-mMI2RiO>

##### c) Dinamika:

Ikasleei partekatze gonbit egingo diegu: Zer egiten dut nik bizitzan, otoitzari, barauari eta limosnari dagokienez?

Arrasto batzuk:

Komunitatean **otoitz egin** dezakete, lotura indartzeko; eta Bibliako pasarteak irakur ditzakete, elkarrekin hausnartzeko.

**Baraua** dela eta, sakrifizio txikiak egin ditzakete egunero; esate baterako, gozokiak ez jatea edo mugikorra gutxiago erabiltzea.

Sustatu limosna karitate eta elkartasun keinuekin; adibidez, etxean laguntzea, gaixoei bisita egitea edota laguntza komunitarioko proiektuak egitea.

#### • Martxoaren 8ko astea:

##### a) Motibazioa:

Ikasleei binaka jartzeko eskatuko diegu, ikusi berri duguna partekatze.

Taldetan partekatu ahal izateko, galdera batzuk botako ditugu, bideoa hobeto ulertze aldera:

- Horrela jokatzeko gauza izango zinateke egunerokoan?
- Zer kostatuko litzaizuke gehien?
- Orain, jarri Tomasen egoeran: irudikatu dezakezu horrela jokatu behar izatea?
- Zertan jarri nahiko zenuke arreta handiagoa?

- Zer da funtsezkoa zure bizitzan?
- Zer distrakzio dituzu? Zer egin dezakezu horiek saihesteko?

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

**b) Film laburra:** Garizuma: Familian hausnartzeko istorio bat.

*Garizuma: Familian hausnartzeko istorio bat*

**• Martxoaren 15eko astea:**

**a) Motibazioa:**

Egun on esanez, Garizumaren amaieran jarriko dugu arreta. Guk, Jesusek bezala, bidaia luzea egin dugu, eta, hartan zehar, hainbat egoera suertatu zaizkigu. Batzuk interesgarriagoak edo erakargarriagoak izan dira besteak baino. Hala ere, denak baliozkoak dira. Horrenbestez, bizipen horiek islatu ahal izateko, "Pazkoko arrautza" bat emango dizuegu. Kristautasunean, sinbolo horren balioa Jesusen gertuko piztuerari lotuta dago, eta aldaketa edo berritze une bati.

Urratsak:

- Gure Pazkoko arrautzak margotzeko, egun hauetan bizi izan duguna eta aipagarri iruditzen zaiguna hartuko dugu inspirazio gisa.
- Atzealdean, idatzi zure astea markatu duen norbaiten izena..

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

Irudia (Pazkoko arrautzak):

<https://www.hogarmania.com/decoracion/manualidades/otros/dibujos-huevos-pascua-para-colorear-39905.html>

**• Martxoaren 29ko astea:**

**a) Motibazioa:**

Gaurkoan, lehenik, Lukasen ebanjelioa (18, 9-14) irakurtzera gonbidatu nahi zaituztegu. Zehazki, fariseuari eta zergalariari buruzko Jesusen parabola bat da. Parabolak ikusten da itxurakeriak —like espiritualek— ez duela Jesus hunkitzen. Aitzitik, bihotz zintzoa eskaintzen dutenengana hurbiltzen da, plantak egiten ez dituztenengana, naturaltasunez jardun eta beti hobetu nahi dutenengana.

Ondoren, ikasleek beren baitako jarrerak identifika ditzaten saiatuko gara, trending espiritual baten bitartez: Nor naiz ni, Jainkoarekin hitz egiten dudanean? Nola agertzen naiz?

Urratsak:

- Eman fotokopia bana # ikurrarekin.
- Irakurketako bi jarrerak idatziko ditugu arbelean, eta adibideren bat gehituko dugu:
  - #FARISEUA (adibidez, #NiEzNaizBesteakBezalakoa #EspiritualkiTOP)
  - #ZERGALARIA (adibidez, #Iagundu #BarkatuJauna)
- Jarraian, gutako bakoitzak Jainkoaren aurrean jarrera hartzeko gure modua laburtzen duen esaldia sortu behar dugu, # ikurrarekin.

**b) Baliabideak:** dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

<https://www.dreamstime.com/hashtag-number-silhouette-white-background-bold-angular-symbol-represents-connectivity-social-interaction-image291458620>

<https://www.biblija.net/biblija.cgi?m=Lk+18&id34=1&pos=0&set=21&l=eu>

## 4- APIRILA:

### **HILEKO MOTIBAZIOA:** Irudikatu dezakezu... dena konektatuta dagoela?

Apirilean, udaberria ospatzen dugu, natura lorez, kolorez eta bizitzaz blai esnatzen den unea. Era berean gogoratu behar dugu denon etxeak, Lurrak, zaintzea behar duela. Landare oro, animalia oro, pertsona oro... Denok gara familia handi honen partaide. Ura, airea eta lurzorua babesten ditugunean, nork bere burua ere zaintzen dugu. Zeren dena bat baita, eta keinu txikiena ere garrantzitsua da: argi bat itzaltzea, hazi bat landatzea, zaborra ez botatzea... Halaxe eraikiko dugu elkarrekin mundu alaiagoa, osasuntsuagoa eta bizitzaz betea!

### • Apirilaren 5eko astea:

#### a) **Motibazioa:** Kontzientziaren Nazioarteko Eguna.

Aste honetan apirila hasi da. Beraz, inguruan dugun guztiari balioa ematea garrantzitsua da. Planetak behar gaitu, eta guk ere gure ingurunea behar dugu. Apirilak zabaltasunera garamatza, naturarekin enpatizatzen. Horregatik, kontzienteak izatea eta, minutu batez, egunerokoan beti behar ditugun gauzei buruz pentsatzea proposatzen dizuegu.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

#### b) **Bideoa:** Klima aldaketa | Egiten duzuna garrantzitsua da | National Geographic

#### c) **Gogoeta:**

Irudiari buruzko gogoeta: Zer iradokitzen dizu? Zer daukazu inguruan?

Badago aldatu nahi duzun zure inguruko zerbait? Zure aburuz, zer egin zenezake, eskui-neko irudira sekula ez iristeko?



### • Apirilaren 12ko astea:

#### a) **Motibazioa:** Zure xede eta ametsekin konektatzea.

Norbere buruarekin konektatuta mantentzea garrantzitsua da. Apirilean, nahi dituzun amets edo xede horiek erdiesteko lehen urratsa egin dezakegu.

Apirilean, motibazioa ausardiatik dator, gogoetatik ekintza kontzientera igarotzeko ausardiatik. Egin lehen urrats hori, nahiz eta txikia izan...

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

## b) Dinamika:

Irakasleak post-itak banatuko dizkizue. Idatzi haietan apirilean gauzatu nahiko zenituzkeen hiru helburu, amets edo xede.

Idatzi eta gero, partekatu ondoan duzun ikaskidearekin. Ondoren, irakasleak bildu eta gordeko ditu. Aurrerago, hilaren bukaeran, berriz irakurriko dituzu, xedeak erdietsi ahal izan dituzun egiaztatzeko eta, halaber, xede berririk sortu zaizun pentsatzeko.

## c) Testua:

Norbere buruarekin konektatuta mantentzea garrantzitsua da. Apirilean, nahi dituzun amets edo xede horiek erdiesteko lehen urratsa egin dezakegu.

Apirilean, motibazioa ausardiatik dator, gogoetatik ekintza kontzientera igarotzeko ausardiatik. Egin lehen urrats hori, nahiz eta txikia izan... Atzo egin genuena gogora ekarrita, zein ekintza egin dezakegu, zure ustez?

### • Apirilaren 19ko astea:

#### a) Motibazioa: Lurraren Eguna (apirilak 22)

Aste honetan, urteko egun garrantzitsuenetako bat dator:

Lurraren Munduko Eguna.

Nahiko egun soila iruditu ohi zaigu.

Esanahi handia du gure bizitzan, ordea. Irudikatu

badakigula ingurunea zaintzen, eta ingurunea egoera onean mantentzen zerk laguntzen duen hausnartu dugula. Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...



## b) Dinamika:

Zer iradokitzen digu irudi honek? Klima aldaketarekin kontzientziatuta zaude? Nola lagundu dezakez arazo horri aurre egiten?

## c) Testua :

Frantzisko aita santuak 2015ean transmititu zuen mezua.

«Mundu hau aurreko belaunaldien oinorde gisa jaso dugu. Baina gogoratu behar dugu, orobat, gure seme-alaben eta etorkizuneko belaunaldien mailegu gisa jaso dugula, eta haiei itzuli beharko diegu!».

Frantzisko aita santuak 2015ean transmititu zuen mezua. Frantzisko aita santuak bizi-rik gauden urteetan eman digutena beti ongi erabiltzeko gonbit egin eta gomendatzen digu. Gainera, gogorarazi digu ongi erabiltzea beharrezkoa dela eta lagungarria izango dela etorkizuneko belaunaldientzat.

### • Apirilaren 26ko astea:

#### a) Motibazioa:

Apirilean zehar, ingurumenaren eskuzabalak izaten ikasi ahal izan dugu. Halaber, beste pertsona batzuk gogoan izatea ona da, eta haientzat lagungarriak izan daitezkeen eta hobeto sentiarazten gaituzten gauzak egitea ere bai. Demagun guk soilik alda dezakegula hori, eta beti sentisazio politak eragiten dizkigun eskuzabaltasun ekintza betetzen saia gaitzkeela.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

**b) Eskuzabaltasunari buruzko gogoeta:**

Irudikatu norbaitek eskerrak ematen dizkizula egunerokoan, trukean ezer espero gabe egin duzun zerbaitegatik. Horrek aldatuko luke zure pentsamoldea edo ikuspegia?

**c) Bideoa:** *Color Your World With Kindness.*

[https://youtu.be/mdA2sByFXII?si=K3Zh8\\_vTFVmWcQd0](https://youtu.be/mdA2sByFXII?si=K3Zh8_vTFVmWcQd0)

**d) Bideoari buruzko gogoeta:**

Orain, bideoa ikusi ostean, besteekin eskuzabalagoa izan behar duzula uste duzu? Zer egin zenezake hobetzeko?

## **HILEKO MOTIBAZIOA: Irudikatu dezakezu... inspirazioa izatea?**

Inoiz gertatu zaizu norbait ikusi eta hau pentsatu izana «hara, haren antza eduki nahi nuke»?

Bada, hori da Maria, gure Ama Ona, haren apaltasunarekin guretzako eredu dena egunez egun. Zerbitzuari emandako bizitza eta Jainkoaren Ama izateari BAI esan izana izan daitezela guztiontzako inspirazio, marista gisa, beti eduki dezagun txerazko hitz bat, irribarre bat, eta kalitate oneko eta entzuteko uneak ingurukoekin. Haren antz pixka bat edukitzeak ongi sentiaraziko gaitu norbere buruarekin, seguru, eta besteak zertxobait hobeak izateko ahalegina eragingo die.

### **• Maiatzaren 3ko astea:**

#### **Motibazioa:**

Aste honetan, Mariaren argitan, bidea zabalduko diogu egiazko bideari: mugatzen gaituen atzean uztea, gure bizitza eskuzabaltasunez eskaintzea, eta altxor paregabea aurkitzea pertsona bakoitzaren baitan. Haren eredu inspirazio izan dadila, eguneroko keinuak maitasun zehatz bihurtzeko, zerbitzatu eta balioa ematen duen komunitate gisa batera hazteko.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

#### **1. baliabidea:**

##### **Nola irudikatzen duzu Maria?**

María, mujer de los cambios

Maria gogora ekartzen dugunean, babesle gisa datorkigu burura, miragarri, dena egin dezakeen Ama gisa... Are gehiago, bakoitzak "gure birjina" dugu sarri, eta gauzak eskatzen dizkiogu: Arrosariokoa, Nekane, Bidekoa, Fatima... Gaur Mariari buruz hitz egin nahi dizuegu, aldaketen emakumea den aldetik, aldaketara irekita dagoen emakumea den aldetik.

Mariak 14-16 urte zituen Jesusekin haurdun geratu zenean. Gaur egun, neskata bat besterik ez zela pentsatuko genuke. Alabaina, I. mendean, hori zen ama izaten hasteko adina, eta bolada bat eramango zuen jada senarrarekin bizitzen. Maria ez zen horrelakoa, ordea. Birjina zen, hots, oraindik ez zuen intimitaterik izan Josefekin. Eta garai horretan hori ez zen ona, ezta desiragarria ere. Jada horretarako adinean ez zeuden emakume birjinak ez ziren "ongi ikusiak", edo ez ziren "baliagarriak" gizartearentzat. Alegia, Jainkoak ez zuen Maria hautatu herriak ongi ikusten zuelako, baizik eta, hain zuzen ere, hauskortasunagatik, apaltasunagatik, bizitzara irekita egoteagatik.

Izan ere, Maria birjina izanik ama bihurtzeak esanahi bitxia du: Jainkoaren planak onartu zituen (amatasuna), pertsona gisa nor zen alde batera utzi gabe, bere buruari leial, bere nortasuna eta bokazioa biziz.

Hori da lehen aldaketa: Jainkoaren planetara irekita bizi daiteke, norbera izateari utzi gabe.

*Testuaren zati horren ostean egin ditzakegun galderak:*

- Aldaketetara irekita nago, Maria bezala?
- Zer aldaketa egin nahiko nituzke nire bizitzan?

Bigarren aldaketa ama izatetik ikasle izatera pasatzea da. Maria ez da Jesusen ama soilik. Ohartu zen Jesusen mezuak inpaktua zeukala bere bizitzan, eta odoleko senidearen papera alde batera utzi zuen fedean senide izateko, jarraitzaile, lekuko leial, eta Jesus zer zen benetan sinetsita. Hori da bigarren aldaketa.

Eta hirugarrena gurutzearen oinean gertatu zen. Beste jarraitzaile bat besterik ez zen, baina fededunen lehen komunitatearentzako erreferentzia bihurtu zen, euskarri, gidari, kontsolamendu eta indar. Eta, hortik abiatuta, eliza osoarentzat.

Gogoeta egin eta partekatzeke galderak, Maria gurutzearen oinean bezala:

- Nor dago hor zurekin, unerik zailenetan?
- Norentzat zaude zu, benetan behar zaituenean?

## 2. baliabidea: Irudikatu dezakezu Mariari loreak ematea?

Hil honetan Mariari loreak eskaintzen diogun modu berean, proposamena da bakoitzak bere buruari galdetzea zer eskain diezaiekegun ondoan ditugunei. Horri buruz pentsatuko dugu *Flores a María* abestia entzuten dugun bitartean; haurtzaroarekin konektatuko gaitu. Amaitzen denean, binaka partekatuko dugu aurrena, eta gero, norbaitek nahi badu, talde handian. Ikaskideak besteei zer eskaintzen dien entzun ostean, gure ustez egiten duen ekarpenarekin osa dezakegu, izan guretzako ekarpena —maila pertsonalean— edo talde osoarentzako ekarpena.

*Flores a María* abestia:

<https://youtu.be/xtfmOkRXLew>

## 3. baliabidea: Irudikatu dezakezu Maria bezalakoa izatea?

Hainbat bertute esleitzen zaizkio Mariari, Jesusen amari: apaltasuna, onberatasuna, baldintza gabeko maitasuna... Ziur asko, maite eta zaintzen gaituzten hurbileko pertsona ugari daude gure egunerokoan. Pertsona horietako bat gogora ekar dezakezue, eta lore hostoetan idatzi zer bertute dituen eta zer eskertu nahi diozun. Gero, lore hostoa gorde eta pertsona horri eman diezaiokezu.

Amaitzeko, abemaria esango dugu denok batera:

Agur Maria graziaz betea, Jauna da zurekin.

Bedeinkatua zara zu andre guztien artean eta bedeinkatua da zure sabeleko fruitua Jesus.

Santa Maria, Jainkoaren Ama, erregutu ezazu gu bekatarion alde orain eta gure heriotzaren orduan. Amen.

## 4. baliabidea: Irudikatu dezakezu zure bizitza besteei zerbitzatzeko ematea?

Erakutsi pantailan Henri Vergès anaiaren argazkia.

Henri Vergès anaia gogoratuko dugu. Laneko bulegoan erail zituzten bera eta Paul-Helene Saint-Raymond serora, 1994ko maiatzaren 8an, Aljerian.

Henri Vergès anaiak eta Paul-Helene Saint-Raymond serorak besteei zerbitzatzeko eman zuten bizitza, maitasunez eta buru-belarri, bereziki hezkuntzaren eta bidelaguntzaren bitartez. Aljerian hil izanak oroitarazten digu nolako balioa duten beren bizitza bakearen eta justiziaren zerbitzura ipintzen dutenek, baita egoera zail edo arriskutsuen erdian ere. Besteekiko maitasuna beldurra edo gorrotoa baino indartsuagoa izan daitekeela erakusten digute, eta aztarna sakona utzi dute munduan.

Zure egunerokoan nola lagundu dezakezu zuk, leku bidezkoagoa eta maitasunez betea izan dadin mundua?

Irudia hemendik hartu dugu:

<https://champagnat.eu/lemaeducativo/2025/03/28/semana-del-4-al-8-de-mayo/>



## • Maiatzaren 10eko astea:

### Motibazioa:

Maria gidari, apaltasunez eta konfiantzaz bizitzen ikasten dugu. Haren bizitzak erakusten digu nola aurkitu Jainkoa gauza txikietan, nolatan eman behar diogun balioa familiaren samurtasunari, eta nolatan zaindu behar diren egunero maitasuna eraikitzen duten xehetasunak. Utz diezaiogun haren ereduari gure bidea argitzen eta gu motibatzen, fedez, esker onez eta dena emanez bizi gaitezen.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

### 1. baliabidea: Mariaren bizitza irudikatu dezakezu?

#### MARIAREN BIZITZA

Mariaren bizitzari buruzko lehiaketa txiki batekin hasiko gara.

1. galdera: Non bizi zen Maria? Nazareten, Galilean

2. galdera: Zer izen zuen Mariaren amak?

- 1. aukera: Maria
- **2. aukera: Ana**
- 3. aukera: Sara
- 4. aukera: Sofia

3. galdera: Zer izen zuen Mariaren aitak?

- 1. aukera: Jesus
- 2. aukera: David
- **3. aukera: Joakim**
- 4. aukera: Petri

4. galdera: Zenbat urte zituela geratu zen Maria Jesusekin haurdun?

- 1. aukera: 12 urte
- **2. aukera: 15 urte**
- 3. aukera: 17 urte
- 4. aukera: 20 urte

Jarraian testu bat irakurriko dugu, haren bizitza hobeto ezagutzeko:

Maria Nazareten bizi zen, Galilean, eta haren gurasoak Ana eta Joakim ziren. Haurtzaroa beste edozein neskak bezala igaro zuen; ez zen ezer ikusgarririk gertatu. Haurtzaroan zehar, neska batek egiten duen guztia egin zuen.

Mariak gurasoei entzuten zien beti. Jainkoari buruzko gauzak haien bitartez ikasi zituen. Gurasoek esanda, Mariak bazekien Mesias gizakiak salbatzera etortzekoa zela. Horixe agindu zien Jainkoak Adam eta Evari jatorrizko bekatuaren ostean. Bekatua garaituko zuen gizon bat etorriko zela. Mariak fede handia zuen, haren zain zegoen. Aitzitik, ez zekien Jainkoak bera hautatu zuela Mesiasen Ama izateko. Gaztetxoa zenean, bizitza Jainkoari emateko erabakia hartu zuen, Hari emana bizitzea erabat.

Mariaren misioa Jainkoaren gogoan zegoen betidanik, eternitate osoan: Berak Nazareten, Galilean, bizi zen neska gazte judua hautatu zuen bere Semearen Ama izan zedin. "Birjina batengana" jo zuen, "Maria zuen izena, eta Josef zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen".

## 2. baliabidea: Irudikatu dezakezu Mariarekin egotea?

Abesti bat entzungo dugu, eta, bitartean, gu zerk edo nork gidatzen gaituen hausnartuko dugu.

Abestia: Athenas – *Contigo, María* – <https://youtu.be/kkVtd-kam6A>

Abestiaren hitzak:

Quiero caminar contigo María  
Pues tú eres mi madre eres mi guía  
Tú eres para mi el más grande ejemplo  
De santidad de humildad  
Quiero caminar contigo María  
No solo un momento todos los días  
Necesito tu amor de madre  
Tu intercesión ante el señor  
Guía mis pasos llévame al cielo  
Bajo tu manto no tengo miedo  
Llena de gracia, ave María  
Hoy yo te ofrezco toda mi vida  
Quiero caminar contigo María  
Madre en el dolor y en la alegría  
Tú que fuiste fiel hasta el extremo  
Fiel en la cruz, fiel a Jesús  
Guía mis pasos llévame al cielo  
Bajo tu manto no tengo miedo  
Llena de gracia, ave María  
Hoy yo te ofrezco toda mi vida  
Celestial princesa mírame con compasión  
Hoy te doy mi alma, vida y corazón  
Guía mis pasos llévame al cielo  
Bajo tu manto no tengo miedo  
Llena de gracia, ave María  
Hoy yo te ofrezco toda mi vida  
Guía mis pasos llévame al cielo  
Bajo tu manto no tengo miedo  
Llena de gracia, ave María  
Hoy yo te ofrezco toda mi vida

## 3. baliabidea: Irudikatu dezakezu Maria gogoan edukitzea egunerokoan?

Otoitza:

Nekatuen ama,  
pixoihalen enperatriza,  
eltzeen erregina,  
erratzen andrea,  
txiro guztien arreba,  
herriaren atea,  
ausardien ehulea,

atsekabetuen laguna,  
borrokalarien aholkulari,  
emakume adoretzu eta apala,  
beso sendoak dituen Ama,  
bidelaguna,  
Jainkoaren samurtasuna ama haragi bihurtuta,  
nahigabe guztien kidea,  
ama ezkongabeen laguna,  
hazten uzten duen ama,  
aldapa gogorretako emakumea,  
Maria, Jesusen ama  
eta gure ama.

#### 4. baliabidea: Irudikatu dezakezu keinu txiki bat egitea?

Maria oso detailezalea zen, eta detaile txikiak zituen ingurukoekin. Berak bezala, guk ere egunari poza ematen dioten keinu txikiak pentsa ditzakegu: irribarre bat, besarkada bat, diosal bat, etab. Eta konpromisoa hartu dezakegu keinu txiki bat egiteko gaur norbaitekin (irakaslea, familiakoa, laguna...).

#### 5. baliabidea: Irudikatu dezakezu familiakoei maite dituzula ez erakustea?

##### MAIATZAK 15, FAMILIEN NAZIOARTEKO EGUNA

Familien Nazioarteko Eguna hurbil ditugunak zeinen garrantzitsuak diren gogoratzeko une berezia da. Familiakoak ez dira beti gurekin bizi direnak soilik; maite gaituztenak, zaintzen gaituztenak eta seguru sentiarazten gaituztenak ere familiakoak dira. Familia bakoitza berdinegabea da, baina denetan daude maitasuna eta elkarrekiko laguntza. Gurasoei, anai-arrebei, aitona-amonei edota lagunei ere eskerrak emateko egun bat da, gure familia handiaren parte direlako.

Zer egin dezakezu gaur, familiakoei edo pertsona garrantzitsuei nola maite dituzun erakusteko?

#### • Maiatzaren 17ko astea:

##### Motibazioa:

Maria erdian jarrita, aste hau Mendekoste berri baten gisara biziko dugu: indarrez eta itxaropenez betetzen gaituen Espiritu Santua hartzen lagunduko digu Mariak. Berri On honek bultzatu ditzala gure fedea eta besteekiko konpromisoa. Konfiantza osoz, gure otoitza esango dugu: Ama, erakutsi iezaguzu bihotza Espirituari zabaltzen eta munduko maitasunaren lekuko izaten.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

#### 1. baliabidea: Irudikatu dezakezu hizkuntza asko hitz egitea?

##### MAIATZAK 16, MENDEKOSTE

Mendekosteri buruz irakurriko dugu.

##### Zer gertatu zen Mendekosten?

Jesus berpiztu eta zerurantz igo ostean, oso misio garrantzitsua utzi zien bere lagunei, ikasleei: Jainkoari buruzko berri onak eta nola Jesusek bizitzen erakutsi zien kontatzea guztiei. Ikasleak beldur ziren, ordea. Ez zekiten nola hitz egin jendeari edo zer egin misio hori betetzeko.

Egun batean, ikasle guztiak leku berezi batean zeuden, otoitz egiten eta itxaroten. Bat-batean, zerbait aparta gertatu zen: Espiritu Santua iritsi zen, harrigarriro. Haize bortitza balitz

bezala heldu zen, etaugar txikiak ikasleen buru gainean agertuko balira bezala. Txundigarria izan zen!

Espiritu Santuak ausardia eman zien eta hainbat hizkuntzatan hitz egiten lagundu zien, ordua arte ez zuten-eta horrelakorik egiten. Era horretan, Jesusen berri eman ahal izan zieten hainbat herrialdeetatik zetozeinei, eta denek ulertzen zuten!

### **Zer da Mendekoste zuentzat?**

Mendekoste eliza sortu zen eguna da. Orduan, ikasleak, Espiritu Santuz beteak, Jesusen maitasunari buruzkoak kontatzen hasi ziren. Haiei esker, gero eta pertsona gehiago hasi ziren Jesusi jarraitzen, eta eliza bizkor-bizkor hazi zen.

Espiritu Santua egunero laguntzen digun adiskide ikusezin bat bezalakoa da. Indarra, bakea eta maitasuna ematen dizkigu ongia egiteko, besteekin adeitsuak izateko eta Jesusek irakatsitakoa egiteko.

### **2. baliabidea: ¿Te imaginas ver lo más bello del mundo?**

Zuen ustez, zer da gauza guztietan ederrena?

Zer iruditzen zaizue bizitzako gauzarik garrantzitsuenak?

Bideoa: ¿Cuál es? - Teresa Kalkutakoaren poema: [https://youtu.be/IQ\\_TJKOmQEs](https://youtu.be/IQ_TJKOmQEs)

### **3. baliabidea: Irudikatu dezakezu zure nortasuna galtzea?**

#### **MAIATZEKO PLAZAKO AMONAK**

Maiatzeko Plazako Amonak 1977an sortutako gobernu kanpoko erakunde bat da. Zehazki, haien helburua Argentinako azken diktadurak desagerrarazitako haur guztiak aurkitzea eta familia legitimoetara itzultzea.

1976ko martxoaren 24an, Indar Armatuak botereaz jabetu ziren Argentinan, estatu kolpe baten bitartez. Erregimen militarrek berrantolaketa nazionalako prozesutzat jo zuen bere burua, eta adin zein egoera sozial guztietako 30.000 pertsona desagerrarazi zituen. Ehunka umetxo bahitu zituzten gurasoei batera, edo ama haurdunen gatibualdian zehar jaio ziren.

ESMA, Campo de Mayon, Pozo de Banfielden eta diktaduraren beste atxiloketa zentro batzuetan, zinezko amaetxe klandestino gisa funtzionatu zuten. Are, 500 senar-emazte baino gehiagoko zerrenda zegoen, jaiotza baten "zain", eta desagerrarazitakoen 500 seme-alaba inguruz jabetu ziren errepresio indarrak, gerrako ospil gisa. Haur batzuk militarren familiei eman zizkieten zuzenean; beste batzuk erakundeetan abandonatu zituzten ezezagun gisa; eta beste batzuk saldu egin zituzten. Kasu guztietan, nortasuna ezabatu zieten eta familia legitimoekin bizitzea, eskubideak edukitzea eta aske izatea eragotzi zieten.

Ezerk eta inork ez zituen Maiatzeko plazako amonak geratu, seme-alaben seme-alabak bilatzeko. Detektibe lanak egiten zituzten, egunero joaten ziren adingabeen auzitegiak, umezurztegiak, bulego publikoak. Aldi berean, garaiko adopzioak ikertzen zituzten. Gizarteak biloba posiblei buruz helarazten zien informazioa ere jasotzen zuten.

Amonak orain helduak diren bilobak bilatzen jarraitzen dute. Gurasoei bezala, nortasunarako eskubidea urratu zieten haiei ere. Eta, xede horrekin, erakundeko talde teknikoak lanean ari dira. Horrez gain, haurren eskubideak horren modu izugarrian berriz ez urratzeko baldintzak sortu nahi dituzte, eta zigorra exijitu delitu larri horien erantzule guztientzat.

### **4. baliabidea: Irudikatu dezakezu guztiontzat zabalik dagoen etxe bat?**

OTOITZA

Andre Maria:

Gure Familiari, Ikastetxeari, Etxeari ez diezaiola jario itxi usaina, egon dadila beti zabalik eta erabilia, bero, zerbitzurako prest eta bere buruaren baitan bilduta egon gabe.

Elkartasuna eta senidetasuna irakasten dituen Etxea, egoismoan hezten ez duena, eta, aitzitik, gizarte bidezkoago baten bilaketa arduratsuan hezten duena.

Sortzeko eta ez errepikatzeko Leku bat, sentikortasuna eta mirestekko gaitasuna suspertzen dituen, asmo onen purutasuna hazten eta bizitzaren kolore berdea dabilen Leku bat.

Espazio askatzaile bat, ez zapaltzailea, non trukerako txanpona alaitasuna den, non fedea eta maitasuna ez diren ohitura, beti zerbait berria baizik, bizitza bizitzera eta ez soilik jasetea bultzatzen gaituena.

Maitasuna eta elkar maitatzea bizitzen diren Topagune bat: han, harreman pertsonala, partekatzea eta atsekabea zein poza batera bizitzea dastatuko dira.

Bestea aurkitzea eta elkarri laguntzea, elkarriketan aritzea eta konfiantza ematea, gus-tura egotea, bizitza kalitatez bizitzea. Azken batean, Zu gure artean bizi zarela nabaritzea.

AMEN.

Bideko Andre Maria, egon gure ondoan, talde gisa egiten dugun bidean.

Erregutu gure alde.

### • Maiatzaren 24ko astea::

#### Motibazioa:

Mariarekin, kontzientzia eskertuarekin bizitzen ikasten dugu: daukaguna aitortzea, ingurukoei balioa ematea eta laguntzea, beste batzuen bizitza eraldatzen duten GKEen bidez. Jarraitu dezagun dena emanaz inspiratzen gaituzten erreferentzien eredua. Ama, erakutsiezaguzu eskertuak eta eskuzabalak izaten, gure bizitza zure maitasunaren isla izan dadin.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

#### 1. baliabidea: Irudikatu dezakezu xehetasun guztiez ohartzea?

Hori martxan jartzeko unea da aste hau. Egunero, behatu zure inguruneko zerbaiti 5 minutuz: zerua, landare bat, zure inguruko soinuak edota meriendaren zaporea. Erreparatu sarri aintzat hartzen ez ditugun xehetasun horiei.

#### 2. baliabidea: Irudikatu dezakezu eskertuta sentitzea?

Pentsatu zergatik sentitzen zaren eskertuta gaur: pertsona batengatik izan daiteke, edo agian egin dudana zerbaitegatik, edo beti balioa ematen ez diegun eguneroko gauzengatik, adibidez, etxea edukitzea, arropa, janaria, eskolara joatea, etab. Eta partekatu talde handian.

#### 3. baliabidea: Irudikatu dezakezu besteentzat bizitzea?

SED GKEa; "besteentzat bizitzea" Mariaren eran.

<https://www.youtube.com/watch?v=SogqrEvJwAs>

Gaur egun hedabideetan agertzen diren pertsonaia ospetsu, *influencer* eta aktoreetako batzuek kausa solidarioren batean laguntzen dute, eta "besteentzat bizitzeko" eredu izan daitezke, Maria bezala. Baina jarrera horiek inguruan ditugunen artean ere aurkitu ditzakegu.

SED GKEaren lana gertuxeagotik ezagutzea proposatzen dizuegu. GKE horretan, "besteentzat bizitzea" ekimen guztien kausa nagusia da. Gure eskoletan dago, eta marista gisa batzen gaitu.

#### 4. baliabidea: Irudikatu dezakezu Malala izatea?

Mariaz gain, besteentzat emana bizi izan diren eta mundu hobe baten alde borrokatu diren emakume ugari daude historian. Horrelakoa da Malala. Haren historia ezagutuko dugu bideo honetan:

Malalaren bizitzari buruzko bideoa: <https://youtu.be/8SXPoGhGoX8?si=5mTwcSIhV-WHMsx>

## 5. baliabidea: Irudikatu dezakezu Jesus lagun gisa?

Otoitza:

Jesus adiskide maitea, familia batean jaio zinen;  
gure otoitzak entzuteko erregutzen dizugu  
eta gure familian nola bizi irakasteko.

Mariarengan, guztiengandik ikasten zuen haurra eta gaztea ikusten dugu.  
Lagundu iezaguzu denei entzuten, konfiantza amaigabeaz,  
eman iezaguzu zure indarra, poza eta txera gailentzeko etxean zein eskolan.  
Halaxe esan digu Mariak, eta imitatu nahi dugu. Amen".  
"Eskerrik asko, Maria, baietz esateagatik".

### • Maiatzaren 31ko astea:

#### Motibazioa:

Aste honetan San Martzelino Champagnaten urtemuga da, une egokia eskerrak emateko, gogoratzeko eta kontuan izateko denok, familia marista gisa, amets bera partekatzen dugula: Martzelinorena.

Baliabideak:

#### 1. baliabidea: Irudikatu zure ametsak betetzen direla

Irudikatu leku lasai batean zaudela, zelai zabal eta bare baten erdian, haize leunak aurpegia laztantzen dizula.

##### 1. Hasieren zelaia:

- Bidearen bi alboetan, lorez betetako zelaiak daude. Loreak zure desioak eta asmoak dira. Lore bakoitzak kolore bizia dauka: urdin sakona, hori distiratsua...

##### 2. Urrezko bidea:

- Jarraitzen ari zaren bidea distiratsua da, argizko bidexka bat balitz bezala. Harritatuta dago. Oina harri batean jartzen duzun bakoitzean, aurrerantz bultzatzen zaituela sentitzen duzu.
- Aurrera egin ahala, bidea hainbat ibilbide erakusten hasten da. Batzuk estuak dira, beste batzuk zabalagoak... Baina denek zaramatzate helmuga berera.

##### 3. Lorpenen mendia:

- Urruti, mendi handientsu bat dago. Gailurra elur dirdiratsuz estalita dago, amets gorenaren eta lortzen zailenen sinbolo gisa. Nolanahi ere, hurbiltzen zaren heinean, gailurrerantz doan bidea markatuta dagoela ikusi duzu, urratsez urrats igo zaitezen, konfiantzaz.
- Ibilbidean zehar, beste pertsona batzuk ikusi dituzu zure ondoan oinez doazenak. Haiek dira laguntzen dizutenak, bidean zehar ondoan dituzunak

##### 4. Errealizazioaren horizontea:

- Bidearen amaieran, horizonteak argi epel eta abegitsuz dir-dir egiten du. Hortxe betetzen dira zure ametsak, bakez beteriko leku horretan. Ez dago urruti, eta iristea ez da ezinezkoa.
- Bidearen bukaerara heltzen zarenean ohartzen zara ametsak ez direla helmuga soilik, baizik eta, orobat, bidaia bat. Ikaskuntzak, zailtasunek eta garaipen txikiak axola dute egiaz.

#### 2. baliabidea: Irudikatu dezakezu mundu hobe bat?

John Lennonen *Imagine* abestiaren bideoa ikusiko dugu, eta, ondoren, minutu bat isilik egongo gara kontzientzia hartzeko. Hartara, irudikatu ahalko dugu nolakoa izango litzatekeen

mundu ideal eta zoragarri bat, nolakoak izango liratekeen bizi garen lekuak, nolakoak izango liratekeen gure atsedena, elikadura, zaletasunak, lanak... Gero, hori guztia adierazten saiatuko gara marrazki batean, plastilinarekin, abesti batekin, papiroflexia eginez, legoekin...

[https://youtu.be/VOgFZfRVaww?si=fG6h\\_PM6rMTN5duA](https://youtu.be/VOgFZfRVaww?si=fG6h_PM6rMTN5duA)

### **3. baliabidea: Irudikatu Martzelinoren bizitza**

Martzelinoren komikia proiektatu eta irakurriko dugu. Ikaskideek pertsonaiak banatu dituzakete, eta bakoitzak bereari dagokion testua irakurri. (Gehitu komikia).

### **4. baliabidea: Irudikatu eliza ireki bat**

Irudikatu dezakezu den-denok sartzen garen eliza bat, eragozpenik eta bereizketarik gabe, Frantzisko aita santuak Lisboako 2023ko Gazteen Munduko Jardunaldietan adierazi zuen bezala?

Ekarri gogora hainbat lekutan bazterturik dagoen jendea, arrazagatik, erlijioagatik, sexu orientazioagatik... Eta egin puntutxo bat edo izar bat edo zerbait eskuan, bolalumarekin edo errotuladorearekin, pertsona horiek guztiak gogoan edukitzeko gaur.

Amaitzeko, Macacoren abesti bat entzungo dugu, *Hijos de un mismo dios*:

<https://youtu.be/4HYVgZT37rg?si=8ZG4vzd0ehd9HTjj>

## 6- EKAINA: Irudikatu dezakezu... hau hasiera besterik ez dela?



### HILEKO MOTIBAZIOA.

San Martzelino Champagnaten bizitza markatu zuten bai haren fedeak, bai Jainkoaren maitasun mezua hezkuntzaren bidez hedatzeko irrikak. Apaiz katolikoa zen neurrian, industria iraultzaren garaian Frantziako landa eremuko haurrek hezkuntzarik eta trebakuntza erlijiosorik ez jasotzeak hunkitu zuen. Ikuspegi argia zuelarik, eta bihotza errukiz beterik, Anaia Maristen Ordena sortu zuen, gaur egun irauten duena. Era horretan, amets egiten zuen guztia lortu nahi zuen Mariaren anaiatxoekin, baina, horretarako, ezbehar ugari jasan zituen, oso egoera zailak. Haatik, fedea, esker ona eta egiten ari ziren proiektua helduleku, arazo guztiak gainditu ahal izan zituzten.

### • Ekainaren 7ko astea:

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

#### 1. baliabidea: Irudikatu Martzelinoren ametsa

San Martzelinoren ametsa: <https://www.youtube.com/watch?v=PW4bRHGJiAM>

Martzelino, bizitza osoa eman zenuen  
gazteentzako kristau hezkuntzan,  
laguntza eta maitasun gehien behar zuten gazteentzat:  
nire bizitzako udaberrian  
zure eskuzabaltasuna imitatu nahi dut;  
eta, baita ere, Jesusi jarraitu nahi diot,  
Mariaren ama babesaren pean.  
Lagundu iezadazu aurkitzen  
Jesusek nik egitea nahi duen bidea  
eta irrikaz konpromisoa hartzen.  
Amen.

#### 2. baliabidea: Irudikatu zu gaur Champagnat izatea

*Tú serás hoy Champagnat* abestian sakonduko dugu.

- Ikasle bakoitzari abestiaren bertso bat emango diogu; ikasle gehiago badaude bertsoak baino, partekatu egin ditzakete, eta bertso gehiago badaude, ikasle bakoitzak bertso gehiago egingo ditu. Helburua ongi ordenatzea da. Horretarako, irakasleak esango die zenbat dauden gaizki eta zenbat ondo, laguntza behar izanez gero.
- Abestiaren bertsoak ordenatu eta gero, kantatu egingo dugu. Eta, azkenean, zein bertso hautatzen dugun partekatuko dugu, zein gustatu zaigun gehien edo zein iritsi zaigun barrurago.

Esta historia que todos amamos,  
no es recuerdo, es hoy realidad;  
en ti, en mí está su amor, que nos hace caminar.  
Has de ser un hermano de todos,  
sembrador de Ebanjelioa y de paz,  
testigo fiel y servidor, solidario y defensor de la verdad.  
Vive en tu corazón lo que Él soñó,  
haz que brote de ti nueva ilusión,  
Marcelino hoy está en tu respuesta de amor,

canta al ritmo de Dios como hizo Él  
y en María tendrás seguridad,  
Marcelino vive en ti, tú serás hoy Champagnat.  
No preguntes ni dónde, ni cuándo,  
tu respuesta no puede esperar,  
Jesús también te llama a ti, al amor universal,  
sólo Dios romperá tus cadenas, sólo en Él hallarás libertad,  
serás feliz si tú te das, te hará fuerte siempre en la dificultad.  
Vive en tu corazón lo que Él soñó,  
haz que brote de ti nueva ilusión,  
Marcelino hoy está en tu respuesta de amor,  
canta al ritmo de Dios como hizo Él  
y en María tendrás seguridad,  
Marcelino vive en ti, tú serás hoy Champagnat.

### **3. baliabidea: Irudikatu lehiaketa bat irabaztea.**

1. Montagne gaztea dela eta, zein urtetan erabaki zuen Martzelinok Maristak sortzea? **1816**
2. Zer nazionalitate zuen Martzelinok? **Frantsesa**
3. Zergatik erabaki zuen Martzelinok eskola uztea?

### **Irakasle batek ikaskide bati tratu txarrak ematen zizkiola ikusi zuelako.**

4. Non sortu zuen lehenbiziko eskola? **La Vallan**
5. Noiz hil zen? **1840ko ekainaren 6an**
6. Martzelino hil zenean, zenbat ikasle, eskola eta anaia marista zeuden?

### **48 eskola, 280 anaia eta 7000 ikasle.**

7. Zein kontinentetara joan ziren maristak aurrena, ebanjelizatzerak? **Ozeaniara**
8. Eskola maristak kontinente guztietan daude? **Bai**
9. Nola du izena L'Hermitagetik igarotzen den ibaiak? **Gier**
10. Noiz inauguratu zuten L'Hermitage? **1825eko maiatzean**
11. Zein da Martzelino Champagnaten leloa? **Haur bat hezteko, maitatu egin behar da.**
12. Zer esan nahi dute hiru bioletek?

### **4. baliabidea: Irudikatu lehen anaietako bat izatea**

Irudikatu lehen anaia maristetako bat zarela. Irudikatu L'Hermitagen bizi zarela (utzi minutu batzuk, irudikatu ahal izateko). Ondoren, San Martzelinoren bizitzako otoitz bat irakurriko dugu batera, edo irakasleak irakurriko du.

Jaiki ostean, komunitatea basoaren erdira joaten zen. Han, Aitak berak eraikitako elizatxo bat zegoen, Mariari eskainia. (...) Guztiek, belaunikaturik Jainkoaren Ama santuaren irudiarren aurrean, gogo biziz egiten zuten otoitz, txunditurik ziruditen. Eta hostoen xuxurla baino ez zen entzuten, zertxobait beherago zebilen uharreko uren zurrumurrua, eta txorien txorrotxioa. (San Martzelinoren bizitza, 94. or.).

## • Ekainaren 14ko astea:

### Motibazioa:

- Aste honetan zehar, saiatu berreraikitzen zure ustetan benetan osatzen duena zure nor-tasuna, zure izana.
- Honaino heldu zara zure indargune eta mugekin, Jainkoaren presentziari esker.
- Pentsatu zure zer balio preziatzen dituzun, ikasturtean zehar gainditutako oztopoen os-tean eta, nahi baduzu, partekatu ikaskideekin.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

### 1. baliabidea: Irudikatu beldurrik ez izatea

Gazteei hitz egiten zienean, H. Emili Turúk hau esaten zuen, maristen nagusia zenean: "Zer egingo zenuke zuk beldurrik ez bazenu? Irudikatu dezakezu?".

Rosanaren abesti bat entzungo dugu, beldurrik gabe bizitzeaz diharduena. COVIDaren ga-raian, artista ugarik berriz jo zuten:

[https://youtu.be/6VkoTrkMhGs?si=N7P\\_8iOlz1caRWKs](https://youtu.be/6VkoTrkMhGs?si=N7P_8iOlz1caRWKs)

Binaka, hitz egin esaldi honi buruz: "Egin ezazu beldurrez beldurragatik egingo ez zenukeena".

Zer ez duzu probatu orain arte, beldur izate hutsagatik?

Zer egin dezakezu hori gainditzeko?

### 2. baliabidea: Irudikatu babestuta egon ahal izatea

Begiak itxita eta arreta jartzeko zein entzuteko jarrerarekin, baretasun eta kontzientzia unea biziko dugu. Arreta arnasketan jarriko dugu, eta gero, galdera hauek egiten joango gara:

Irudikatu dezakezu sare sozialetan ikusten duzula norbaiten aurka ari direla? Irudikatu de-zakezu irakasle batek ikaskide bat iraintzen duela? Irudikatu dezakezu ikaskide batek beste bati barre egiten igarotzen duela eguna? Irudikatu dezakezu ikaskideren bat etxean gaizki pasatzen ari dela jakitea? Irudikatu dezakezu irakasle batek ikaskide bat jotzen duela? Zer egingo nuke nik? Zer egin behar dut nik?

Ikasleak kontzientziatzeko unea da. Egoera jakin batzuetan, haurrak babesteko eskolako ordezkariari informazioa helarazi behar diote. Baliatu aukera ordezkari nor den adierazteko.

### 3. baliabidea: Irudikatu Martzelino izatea egun batez

Ikasgelan, sei talde egingo ditugu Martzelinoren bizitzako une bat antzezteko.

- Irakasleak haur bat jo eta Martzelinok eskolara itzuli nahi ez duenean.
- Montagnerekin hizketan ari denean, Jainkoa ezagut dezan.
- Anaia marista batekin elurretan dagoenean, eta Mariari erregutzen dio lagundu diezaien.
- Anaia maristekin L'Hermitage eraikitzen ari denean.
- Martzelinoren heriotza.
- Gure egunerokoa eskoletan, gure artean baitirau bizirik.

### Recurso 4: Imagina sentirte agradecido

Otoitz hau irakurriko dugu elkarrekin:

Gaur amore ematen dut, zuri eskerrak emateko.  
Eskerrik asko, gure guztia Zu zarela erakusteagatik.  
Zu, sufrimenduan gu sostengatzen,  
eta adiskidetzeko dei egiten

etengabe.  
Zu, apal eta eguneroko,  
baina ez horregatik neurri txikiagoan emana.  
Zu beti,  
neure iruzurraren txokorik ilunenetaraino.  
Eskerrik asko, txingarrak zirikatzeraz sartzeagatik,  
baita atea itxita nagoenean ere.

### • Ekainaren 21eko astea:

#### Motibazioa:

Gero eta gutxiago falta da ikasturtea bukatzeko. Modu inkontzientean, ikasturtean zehar ondoan izan ditugunei agur esaten hasten gara, eta esperientzia positiboak, une nostalgikoak edo maiz ez oroitzea hobeto den uneak gogoratzen ditugu. Hala ere, denak izan dira gure parte. Orain, ikasturtea esku artean hartzeko ordua da, eta orainera ekarri behar dugu ikasturte osoan zehar bizi, entzun eta sentitzen joan garena, inguruan nor izan ditugun ahaztu gabe.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

#### 1. baliabidea: Irudikatu denbora kapsula bat edukitzea

"Denbora kapsula". Bakoitzak bi gauza idatziko ditu: lehengo ikasturtetik gogoratu nahi duzun zerbait, eta hurrengo ikasturterako zerbait, "Irudikatu dezakezu...?" galderari erantzunez. (Idatzi galdera eta erantzun posible bat). Idatzitakoa bildu eta denbora kapsulan gordeko dugu. Kapsula hurrengo ikasturtearen hasieran zabalduko da, eta idatzitakoa bantatu.

#### 2. baliabidea: Irudikatu besteen larruan jartzea

Prestatu ikasle adina paper zatitxo. Ikasle bakoitzak ezagutzen duen pertsona bati idatziko dio paper zatitxoan. Ikasgelako edo ikastetxeko norbait izan daiteke; esate baterako, atezaina, zuzendaria, sukaldaria, anaia marista bat, irakaslea, idazkaria edo ikaskide bat. Gero, paper zatitxoak nahasi eta bakoitzak bat hartuko du. Hainbat egoera planteatzen joango gara: ikastetxea sutan dago, azterketa batean huts egin duzu, txango bat dago, ikasle bat egun batzuk kanporatu behar da, janaria ez da iristen, ate bat konpondu behar da, berokuntza ez dabil, gatazka bat gertatu da ikasle batzuen artean, ikasle bat berandu iritsi da... Bakoitzak esan behar du nola sentituko litzatekeen, eta, rola asmatzen ez bada, txandarekin jarraitu behar da denek hitz egin arte. Ondoren, asmatu ez direnekin jarraitu behar da, egoera berri bat azalduta, harik eta denak asmatzen diren arte.

#### 3. baliabidea: Irudikatu ikasturte hasiera

Hausnartu:

Ikasturte hasieran irudikatu zenezakeen egin duzun guztia eta bizi izan duzun guztia gertatuko zela?

Irudikatu zenezakeen erdietsi dituzun xede guztiak errealitate bihurtuko zirela?

#### 4. baliabidea: Irudikatu mundu hobe bat

Mundu hobe bat irudikatzeari buruzko abestia: *Heal the world*, Michael Jackson.

<https://youtu.be/iQToXedMRxc?si=Nhiyh9lqkBGHSxUx>

Otoitz batekin amaituko dugu, Jainkoak lagun diezagun gure ametsen alde borrokan jarraitu dezagun:

Lagundu, Jauna, amets handiak edukitzen beti,  
eta buru-belarri lan egiten horiek betetzeko.  
Zure bedeinkapena egon dadin beti gurekin.  
Amen.

#### **5. baliabidea:** Irudikatu haurtzaroko ametsak

Ikasgeletan bioleta batzuk ipiniko ditugu zintzilik eta, haietan, txikitan izan zenituzten ametsak idatziko ditugu. Gero, ikaskideekin partekatuko ditugu, binaka edo hirunaka.

Irudia hemendik hartu dugu:

